


ITSAS ISTORIOAK



 BOOKTEGI

G.H.

JACK LONDON



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

JACK LONDON

itsas istorioak

Itzulpena:
Arantza Sarriegi

AURKIBIDEA

MAUKI

SALOMON UHARTE-MULTZO IZUGARRIA

NAHITAEZKO GIZON ZURIA

BALEAREN HORTZA

MAUKI

Ehun eta hamar libera pisatzen zituen. Ile kizkurra eta azal beltza zuen. Baina beltz berezia zen. Ez urdinska, ez gorrixka, aran kolorekoa baizik. Mauki zeritzan eta buruzagi baten semea zen. Hiru “tanbo” zituen, hiru debeku esan nahi duen Polinesiako tabu hitzaren antzeko melanesiar hitza da hau. Maukiren hiru tanboak hauek ziren: lehenik, ezin zuen emakume eskurik ukitu eta ez zezakeen utz emakumeek ere ukitzen, ez bera eta ez bere edozein gauzarik. Bigarren, ez zezakeen txirlarik jan, ez eta hauetan prestatu eta sutan beroturiko beste edozein janari ere. Hirugarren, ez zezakeen kokodrilorik ehizatu ez eta animalia hauen zatiren bat, ttipiena izan arren, hortz bat ere, zeraman txalupatan ibili. Hortzek beste beltz kolore bat zuten, desberdina, biziagoa edo hobeki, kedarra kolorekoa. Amak, gau batez horrela tindatu zizkion igurtziaren igurtziz Malaitako Port Adams herri atzean zegoen meatze bateko hautsez. Irla hau Salomon irla-multzoko menderakaitzena zen, hain menderakaitza ze, ez salerosleek ez kolonoek, ez baitute lortu oraindik ere han hanka jartzerik. Aspaldiko itsas kuien arrantzale eta sandalo salerosleen garaietatik hasi eta, rifle automatiko eta gasolina motorrez hornituriko beltz-tratulari egun hauetara arte, ehundaka abenturazale zuri hil dira irla horretan, bertakoen aizkora eta lehergailuen poderioz.

Horrela Malaita, gaur egun ere, auzoko irletan (zibilizatuagoak hauek) soro lanetarako urteko hogeitahamar dolarretan kontratatzen dituzten langileen bila ibiltzen diren biltzaileentzat lekurik onena da. Irla horietako biztanleak zibilizazioak gehiegi kutsatu ditu soro lanetan ibiltzeko.

Maukik belarriak zulatuak zituen, ez leku batean eta bitan bakarrik, dozena pare batetan baizik. Zulo haietako ttipiengan, buztinezko pipa bat zeraman. Zulorik handienak, gehiegizkoak ziren bitxi harentzat. Pipa ontzi osoa pasa bait zitekeen haietatik. Belarri bakoitzeko zulorik handiengan, lau pulgada diametro zuten egurrezko lau tapoi zeramatzen. Irekitasun horien ingurumariak gutti gora behera hamabi pulgada eta erdikoak ziren. Mauki ez zen oso berezia bere gustuei zagokielarik. Zulo ttipiengan, beste zenbait gauzen artean, kaskilo hutsak, iltzeak, kobrezko torlojuak, soka zatiak, kordelezko kable zatiak, hosto berde puskak eta arratsean, freskatzean, laranja gorri koloreko hibisko loreak zeramatzen. Horrela, edonora joanda ere, ez

zuen patrika beharrik. Gainera, hauek, debekatuak zituen, bere jantzi guztia zabalean pulgada batzuk zituen perkal zati bat besterik ez baitzen. Buruan, kizkur batetan, laban itxi bat ikusten zitzaion. Bere aberastasunik preziatuena, portzelanazko katilu baten heldulekua, dortoka maskorrez egindako eraztun batean sudurretik zintzilik zeramana zen.

Baina hala eta guztiz ere haren aurpegia atsegina zen. Edozein aldetatik begiratuta ere ederra zen, batez ere Melanesiakoa zela jakinik. Akats bat bakarrik zuen: tinkotasuna falta zitzaion. "bigun" xamarra zen, ia umea. Aurpegi tankera ttipia, leuna, kokotz makala eta ezpainak ere berdin. Ez masailezurak, ez bekokiak eta ez sudurrak, ez zuten indar eta senik adierazten. Begietan bakarrik nabari zitzaion bere nortasuna osatzen zuten, eta gehienez ezarian pasatuaz, hain ugari zituen berezitasunen isladapen bat. Hauek ausardia, sendotasuna, adorea, irudimena eta zuhurtasuna ziren, eta denek batera ekintza zuzen eta logiko baten bidea aurkitzen zutenean, inguruko guztiak txunditurik uzten zituen.

Bere aita Port Adams herriskako buruzagia zen. Beraz Mauki, jaiotzez, ur gazitako semea zen. Erdi anfibioa zela esan daiteke. Arrain eta ostraz asko zekien eta harkaitz puruak harentzat liburu irekiak ziren. Kanoei buruz ere ulertzen zuen. Urtebete zuelarik ikasi zuen igerian eta zazpi zituelarik minutu batez arnasarik eutsi eta hogeita hamar oin sakonera arte zuzenean jaisten zen. Baina zazpi urte zituelarik barreneko gizonak, igeri ez dakitenek eta itsasoari beldur diotenek, lapurtu zuten. Arrez gero Maukik itsasoa urrunetik bakarrik ikusi ahal izan zuen, oihan tartetatik edo mendi gailurretatik. Fanfoaren esklabu zen. Malaitako mendi hegaletan zabaldurik zeuden hogeiren bat herrisketako buruzagia zen hau. Mendi hauetatik azaltzen den kea da itsasgizonentzat, barnean biztanleak bizi direla frogatzen duen ezaugarri bakarra. Ez baitira zuriak Malaitan sartzen. Behin ausartu eta urre bila agertu ziren eta han utzi zituzten euren buruak zintzilik, aurpegian betirako keinu bat zutela, keturiko ahuntzaren bezala, barreneko gizonen txaboletan.

Maukik hamazazpi urte zituela, Fanfoari tabakoa bukatu zitzaion. Egoera ezinbestekoa zen. Garai zailak izan ziren haiek bere herritarrentzat. Fanfoak hanka sartze bat egin baitzuen. Suo, goletak hondeatzeko egin behar zituzten joan-etorriak egiteko, oso kai ttipia zen. Adarrak ur sakonetara zintzilik zituzten manglez inguraturik zegoen. Benetako zepo bat zen eta zepo barrura bi zuri sartu ziren ketxe txiki batean. Langile bila zetozen, salerosketarako tabakoa,

erosgai eta guzti. Hiru rifle baino gehiago eta munizio pila handi bat zekarten. Suon ez zegoen ur gazitako gizonik, eta handik bakarrik itsasoratu zitezkeen barrenekoak. Ketzeko bi zuriek negozio biribila egin zuten. Hogeita lau orduan hogeit langile hartu zituzten. Fanfoa zaharrak ere sinatu zuen. Baina egun hartan bertan kontratatu berriek, burua moztu zieten bi zuriei, eskifaia guztia hil eta itsasontzia erre zuten. Hiru hilabetetan ez zen ez tabakorik ez ezer falta izan barreneko herrixketan. Baina gero urrutitik norbaitzuk granadak botatzen hasi ziren haien mendietara, gudu gizonak etorri ziren eta bertakoek herrixkak utzi eta oihaneko sakontasunean ezkutatu beharra izan zuten. Gero auzoak, tabako eta merkantziak erre, koko eta bananak moztu, taro baratzeak ezabatu eta oilo eta zerriak akabatu zituzten. Fanfoa eskarmentatu zen, eta bitartean tabakorik gabe egon behar izan zuen. Bere kideak zeharo beldurturik zeuden kontratatzaileen itsasontzietara hurbiltzeko. Horregatik Fanfoak, Mauki esklabua jaitsi zezatela eta truka zezatela, tabako piska bat, aizto, aizkora, perkal eta abarrez agindu zuen, berak soro lanaren bidez ordainduko zituela eta. Mauki erabat izaturik zegoen goletara igo zutenean. Zuriak oso ankerrak ziren. Hala izan behar zuten, bestela ez baitziren ausartuko Malaitako itsasertzera hurbiltzen eta hango kaietara sartzen goleta bakoitzean bi bakarrik zirelarik. Are eta gehiago kontuan hartzen badugu haietako bakoitzak hamabost ala hogeit beltz zeramatzala eta beste hirurogei ala hirurogeita hamar beltz kontratatuak. Eta horretaz gain, itsasertzeko biztanleen arriskua zegoen, edozein unetan goleta eta bertako eskifaia eraso baitzezaketen. Derrigorrez zuriek izugarriak izan behar zuten. Gainera tresna miragarriak zituzten, sarritan eta sekulako abiadan tiro egiten zituzten rifleak.

Haizerik ez zegoenean, itsasontziak ibilarazten zituzten burdin eta latoizko tresna bidez, eta gizonak bezala hitz egin eta farre egiten zuten kutxak ere bai. Eta entzun ere, entzuna zuen, zuri ahaltsu baten aztikeria, nahi zuenean hortzak kendu eta nahi zuenean jarri egiten zituena. Mauki ontzi gelara jaitsi zuten eta bi zurietako bat gainean geratu zen zain, gerrikoan errebolber pare bat zituela. Ontzi-gela barnean zeuden besteak, keinu xeble eta arrastoak egiten zituen liburu baten aurrean eseririk. Oilo edo zerri bat balitz bezala begiratu zion Maukiri, besazpiak aztertu zizkion eta liburuan zerbait idatzi zuen. Ondoren idazteko erabiltzen zuen zotz hura ekarri zion eta Maukik papera muturrez ukitu zuen orduko, Moonglean Xaboi Konpaniarentzat hiru urtez lan egitera behartua zegoen. Inork ez zion adierazi bere konpromisoa betearazteko gizon zuriaren borondate basatia tartean aurkituko zuenik, ez eta atzetik eta helburu berdinarekin Ingalaterrako gudu itsasontzien boterea aurkitu behar zuenik.

Leku ezezagunetako beltz asko zegoen. Gizon zuriaren agindua jarraituz, bere ileetan zeraman luma kendu zioten, ilea erabat moztu eta gerrian perkal hori bizi-biziko "laba-laba" bat lotu zioten.

Goletan egun asko pasa ondoren eta berak behin ere pentsatuko zuen baino lur eta irla gehiago ikusi ondoren, Georgia Berrian lurreratu ziren, eta basoan kainabera eta jungla moztzen nekazari aritu ziren. Orduan ezagutu zuen lehen aldiz "lan" hitzaren esanahia. Fanfoaren esklabo zela ere ez zuen hainbeste lanik egin. Maukiri ez zitzaion lanik gustatzen. Egunsentian jaiki, ongi ilunduta gero oheratu eta egunean bi aldiz jan. Janaria beti berdina zen. Aste osoan patata besterik ez zuten ematen eta hurrengo bi astetan arroza bakarrik. Egunero kokoen mamia azaletik bereizten zuen eta egunero, begiak gaixotu zitzaizkion arte, kopra ketzeko zeuden suak zaindu behar zituen. Gero arbola botatzen jarri zuten. Aizkora ongi erabiltzen zuen, eta horregatik zubi-eraikuntza taldera bidali zuten. Behin bide irekitzeko taldera zigortu zuten. Beste batzuetan, urruneko hondartzetatik kopra ekartzen zuten itsasontzietako eskifaian parte hartzen zuen, edo zuriekin itsasoratzen zen arrantzara.

Beste gauza batzuen artean "beche-dener" ingelesera hitz egiten ikasi zuen, eta honek kontramaisua eta beste lagun guztiak ulertzeko balio izan zion, azken hauek milaka dialektotan hitz egiten baitzuten. Zuriei buruz ere gauza batzuk ikasi zituen: beti betetzen zutela emandako hitza. Gizon bati tabakoa eman behar ziotela esaten bazioten, eman egiten zioten. Zerbait txarra egin eta bizkarra berotuko ziotela esaten bazuten, benetan berotuko zioten. Maukik ez zekien zer zen bizkarra berotzea, baina sumatzen zuen ekintza honek hortz hauste eta odolarekin zerikusi handia zuela. Beste gauza bat ere ikasi zuen ongi: zuriek ez zutela debekaturik zegoen zerbait egiten ez zuen inor zigortzen. Mozkortzen zirenean ere, eta maiz mozkortzen ziren, inoiz ez zuten gizon bat joko, legeren bat hautsi ez bazuen behintzat.

Maukiri ez zitzaion soro lana gustatzen. Lana gorrotatzen zuen, eta buruzagi baten semea zen. Gainera baziren hamar urte Fanfoak Port Adamsetik eramane zuela, eta etxeaz gogoratzen zen. Bere esklabo garaiak ere atseginez oroitzen zituen. Eta alde egin zuen. Basoan sartu zen, hego aldera jarraituz hondartzara iritsi arte eta han Port Adamsera iristeko txalupa bat lapurtzeko asmoz. Baina sukarrak hartu eta atzeman zuten eta berriro, erdi hilik, ihes egin zuen lekura eramane zuten.

Baina laster, berriro ihes egin zuen, oraingoan Malaitako bi gizonen laguntzaz. Itsasertzeraino hogeita mila korritu zituzten eta auzo horretan bizi zen irla horretako gizon aske baten txabolan gorde ziren. Baina gau ilunean, herriskako biztanleei beldurrik ez zieten bi gizon zuri iritsi ziren eta hiru iheslariei bizkarrak ondo berotu eta zerriak bezala loturik, txalupara bota zituzten.

Gorde zituen gizonari heurei baino hamar aldiz gehiagoko zigorra erori zitzaion, lle, azal eta hortzak txikituz, gehiago iheslari bat ezkutatzeko gogorik izan ez zezan.

Urtebete osoan lan egin zuen Maukik. Horren ondoren, janari ona eta bizitza atsegina zen etxe batean zerbitzua eman zioten. Dena garbi edukitzeak ahalegin gutti eskatzen zuen eta gizon zuriari eguneko ordurik gehienetan eta gaueko zenbatsutan ere whisky eta garagardoa zerbitzatzeko ere ez zuen askorik eskatzen. Bizitza hura gustatzen zitzaion, baina Port Adams askoz ere gehiago oraindik. Kontratuak zioenez, bi urte geratzen zitzaion, gehiegi, herrimenez atsekabeturik dagoenarentzat. Denbora pasatzen zihoan eran, eskarmentu handiagoa zuen eta bestalde, orain etxe batean lan egiten zuenez, ihes egiteko egokitasun handiagoak zituen. Rifleak garbitzeko ardura zuen, eta gordailuko giltza non egoten zen bazekien. Ihesaldia antolatu zuen eta gau batez Malaitako hamar gizon eta San Kristobalگو batek, isiltasunik handienez, barrakoietatik irten eta txalupa bat hondartzaraino eramane zuten. Maukik eman zien txalupako giltzarrapoen giltza eta dozena bat Winchester, munizio pila bat, dinamita kutxa bat, detonagailuak eta metxak, eta hamar kutxa tabako ere bai.

Ipar-sartaldeko montzoiaren haize bolada zen. Gau guztian hegoalderantz joan ziren, egunez urruneko irla hutsetan ezkutatuaz edo txalupa landare artera sartuaz irla handien inguruetatik igarotzen zirenean. Horrela Guadalkanalera iritsi ziren, itsasertza inguratu eta Floridarantz joateko. Ezinbesteko itsasertzak gurutzatu zituzten. Irla hura izan zen, bertakoek San Kristobalگو gizona erahil zutena eta bere gorputza, burua ez beste dena prestatu eta jan zuten lekua. Malaitako itsasertza hogeit mila milatara zegoen, baina azken gaueko korronteez eta haize boladez ez zieten bertara iristen utzi. Egunsentiak beren helburutik mila gutxitara harrapatu zituen. Baina egun argiarekin batera, itsasontzi bat inguratu zitzaion, eta hamabi rifle zituzten hamaika gizon beltzi beldurrik ez zieten bi zuri zetozen bertan. Mauki eta bere lagunak Tulagira eramane zituzten, buruzagi zuri nagusia bizi zen lekura. Epaiketa bat izan zuten eta ondoren iheslariak banan-banan lotu eta bakoitza hogeit makilakadaz zigortu zuten. Hamabost dolarreko isun bat ordaintzera zigortu eta, bizkarreko ederrak hartu ondoren, Georgia Berrira bidalirik, lanean jarri zituzten. Maukik ez zuen gehiago etxe batean lanik egin. Bide irekitzen jarri zuten. Hamabost dolarreko isuna, kontratatu zuten zuriak ordaindu zuten, beraz berak lan eginez ordaindu behar zien, eta honek kontratua sei hilabetez gehiagotzen zela esan nahi zuen. Bestalde lapurturiko tabakoak hamabi hilabete gehiago luzatzen zuen kontratua.

Port Adams orain hiru urte eta erdira geratzen zen. Horregatik gau batez txalupa bat lapurtu, Manning itsasarteko irletan ezkutatu, iraganbidea pasatu eta Isabel sortaldeko itsasertza inguraturik, ia hirutatik bi eginik zuela, Merenge aintziran harrapatu zuten zuriek. Handik aste betera ihes egin zuen berriro eta oihanean sartu zen. Bertakoak ur gazitako gizonak ziren, denak kristauak. Zuriek Mauki harrapatzeagatik, bostehun tabako zotz eskaini zituzten, eta kanoa bat lapurtzeko asmotan hondartzarantz jaisten zen bakoitzean, beti norbaitek jarraitzen zuten. Lau hilabete iragan ziren horrela, zurien eskaintza mila zotzetaraino igo zen arte, eta Mauki harrapatua izan zen eta Georgia Berrira itzulia, eta bide irekitze taldera eramana gainera. Mila tabako zotzek berrogeita hamar dolar balio zuten eta Maukik ordaindu behar zuen, beraz hogeitahi hilabete gehiago lanerako. Port Adams bost urtetara gelditzen zen. Orain inoiz baino herrimin handiagoa sentitzen zuten eta ezin zuten burua asentatu, ongi portatu eta ez zuten bost urtetan zintzo jarraitzerik pentsatzen. Hurrengo ekinaldian, ihes egitera zihoan une berean harrapatu zuten. Moonglean Xaboi Konpainiako irla horretako arduradun zen Habeby jauna informatu zuten, eta honek zuzen ezina zela adierazi zuen. Konpainiak Santa Kruz irletan eta itsasotik ehunka milatara soroak zituen, eta hura zen Salomon irletako domagaitz guztiak joaten ziren lekua. Eta hara bidali zuten Mauki, nahiz eta inoiz ez iritsi. Itsasontzia Santa Anan geratu zen, eta gauez Mauki igerian lurreratu zen, bi rifle eta tabako kutxa bat lapurtu eta kanoa batean San Kristobalera alde egin zuen. Malaita iparraldera geratzen zen, berrogeita hamar edo hirurogei milatara baina, ibilaldiaren erdian, haize erauntsi batek berriro Santa Anara bidali zuen eta berak lapurreta egin zion salerosleak katez lotu, eta Santa Kruz itsasontzia itzuli arte gatibu eduki zuen. Salerosleak bi rifleak berreskuratu zituen baina tabakoak beste hamabi hilabete gehiagoko lana esan nahi zuen. Orain, sei urte zor zizkion Konpainiari. Georgia Berrira itzultzerakoan, itsasontzia Marau itsasartean geratu zen, Guadalkanaleko hego-sortaldean. Maukik irlaraino eskuak esposaturik zituela igeri egin zuen eta oihanean ezkutatu. Itsasontziak bere bidea jarraitu zuen, baina Moongleaneko arduradunak mila tabako zotz eskaini zituen eta barreneko biztanleek Mauki harrapatu zuten eta horrela urtebete eta zortzi hilabete gehiagoko kontratura behartu zuten. Berriro ere, eta itsasontzira iritsi baino lehen, ihes egitea lortu zuen, oraingoan txalupa bat eta salerosleari lapurturiko tabako kutxa batez. Baina ipar- sartaldeko haizeek Ugi inguruan huts eginarazi zioten, eta, bertako kristauek tabakoa lapurturik, Moongleaneko arduradunarengana eramane zuten. Lapurturiko tabakoak urtebete gehiagoko lana adierazten zuten, beraz zortzi urte ziren ia zor zituenak.

—Lord Howera bidaliko dugu —esan zuen Habebyk—. Han dago Bunster, eta ea elkar ulertzen diren. Edo Bunsterrek akabatzen du Mauki edo Maukik akabatzen du Bunster. Edozein eratarare, irabazian irtengo gara.

Isabel irlan dagoen Merenge aintziratik irtenik eta ipar magnetikorantz itsasoraturik, ehun eta berrogeita hamar mila ondoren, Lord Howeko koraldun hondartzak ikusten dira, ehun eta berrogeita hamar mila zirkunferentzian eta zabalerarik handieneko unean ehunka yarda batzuetako lur tinkoa duen atoloi bat dago. Bere gailurrik handienak, gehienez ere itsas-mailatik hamar oinetara daude. Hondarrezko zirkunferentzia barnean, koralezko irlatxo ziprztinduriko aintzira handi bat dago. Lord Howe ez da Salomonetako irla-multzokoa. Salomon irla-multzokoa hizkuntzaz melanesiarrak diren bitartean, Lord Howe atoloi bat da, eta bere biztanle eta hizkuntza polinesiarrak dira. Biztanleak, Polinesiatik sartalderantz gaur egun ere jarraitzen duen emigratio mugimenduari esker etorritakoak dira. Bertakoak kanoetan hego-sortaldeko haizeek bultzaturik iristen dira itsasertz horretara. Ipar-sartaldeko montzoiaren garaian, melanesiar biztanleek ere badute harantzako joera.

Inork ez du inoiz Lord Howe edo Ontong-Jaba, honela ere deitzen baita, bisitatzen. Thomas Kook Sonek ez du munduko zoko hartarako txartelik saltzen, eta turisten burutik ere ez da pasatzen. Misiolari zuri batek ere ez du hura hankaz zapaldu. Bere bost mila biztanleak baketsu bezain antzinakoak dira. Eta hala ere, beti ez zen horrela izan. Sailing Directions-en esaten denez, saltzaile eta erasotzaile hutsak dira baina haiek ez dakite, munduko zoko urrun hartakoen bihotzetan egin zen aldaketaren berri, duela urte batzuk itsasontzi bat harrapatu eta bertako bat ez beste eskifai osoa hil zutelako. Bizirik irten zena, bere lagunei hango berri eman eta, Lord Howera itzuli zen beste hiru itsasontzitako kapitainekin. Hiru itsasontzietako eskifaiak aintzira barnera sarturik, zurien ebanjelioa aldarrikatu zuten, alegia, zuri batek bakarrik hil dezakela beste zuri bat, eta menpeko arrazak alde batera geratu behar dutela. Aintzira goitik behera iragan zuten dena hondatu eta deseginez. Hondarrezko zirkulu estu hartan ez zegoen ihes egiteko biderik, ez eta ezkutatzeko oihanik ere. Bertakoak ikusi orduko erasotzen zituzten zuriak, eta okerrera zera zen: haien aurretik ez zegoela alde egiterik. Herrixkei su eman, txalupak desegin, oilo eta zerriak hil eta kokoteroak moztu zituzten. Horrela hilabete osoan ibili ondoren itsasoratu ziren. Baina gizon zuriarenganako beldurra betirako itsatsirik geratu zen, eta handik aurrera ez zuten izan kalte egiteko adorerik.

Lord Howen zegoen zuri bakarra Max Bunster zen, Mooglean Xaboi Konpainiako langilea. Atoloi hartara bidal zezaketen lekurik urrunena zelako bidali zuten. Eta behin betirako bertatik kendu ez bazuten, bere ordezkiko gizon bat aurkitzea zaila zelako zen. Alemaniaren sendokote bat zen, eta bazuen buruan halakoxe ero partea. Erdi zoraturik zegoela esatea, gutxiegi esatea zen.

Harroa, saldua eta irla bertako edonor baino mila bider basatiagoa. Beldurtien basakeriaz baliatzen zen. Hasieran Konpainiak Sabora destinatatu zuen; kolono tisiko bat ordezkatzeko bidali zutenean, Bunsterrek ukabildakaz eraso, eta bera eraman zuen itsasontzian bidali zuen egoera horretan.

Habeby jaunak haren ordezkari "Yorkshireko" erraldoi bat aukeratu zuen. Erraldoiak kirten sona zuen eta jatea baino borroka egitea nahiago zuela zioten. Baina Bunsterrek ez zuen borrokarik nahi izan. Hamar egunetan arkume bat bezain otzan ibili zen, baina denbora horren buruan "Yorkshireko" erraldoia sukar eta disenteriak jota hil zorian jarri zen. Bunsterrek orduan eraso zuen lurrera botaz eta, dozena bat aldiz bere gorputz gainera salto eginez, zeharo desegin zuen. Bere biktimak, sendatutakoan, emango zion jipoiaren beldur Gubutura alde egin zuen "kuter" batean, eta han nahiko fama hartu zuen ingeles elbarri gazte bati, bi aldakak bala batez alderik alde zeharkatu zizkiolako. Orduan erabaki zuen Habeby jaunak, Lord Howera, atoloi geldira, bidaltzea.

Bunsterrek bere etorrera, botila ginebraz beteriko kaxoi erdi bat hustuaz eta ospakizuna osoa izan zedin, bera destino berrira zeraman arnas larriko agurea astindu zuen. Itsasontzia aldendu zenean, hondartzan bildu zituen "kanaka" guztiak eta bere aurka borrokatzera behartu zituen, menderatzen zuenari tabako kaxoi bat eskainiaz. Hiru kanaka bota zituen, baina laugarrenak menderatu zuen. Berak, tabakoa eman ordezkari, birrikak zulatu zizkion bala batez.

Eta horrela hasi zen Lord Howen Bunsterren erreinua. Hiru mila lagun bizi ziren herririk handiengan, baina bera igarotzen zenean denak beldurraren beldurrez ezkutatu ziren. Gizon, andre eta haurrek, denek ihesari ematen zioten. Zakur eta katuak ere ezkutatu egiten ziren, eta erregea bera ere, hamaika aldiz ezkutatu zen lasto pean. Bi lehen ministroak zeharo izuturik zeuden, gizon hark arrazoien ordezkari ukabilen indarra erabiltzen baitzuen.

Eta Lord Howera iritsi zen Mauki zortzi urte eta erditan Bunsterrentzat lan egitera. Ez zegoen atoloitik alde egiteko biderik. Onerako edo txarrerako bi gizonek elkarrekin bizi behar zuten. Bunsterrek berrehun libera pisatzen zuen eta Maukik ehun eta hamar. Bunster basapiztia endekatua zen eta Mauki gizon basati bat. Biak setatsuak ziren, eta bakoitzak bere bideak zituen bere gogoa lortzeko.

Maukik ez zekien nolakoa zen bere nagusia. Inork ez zion gaztigatu eta horregatik Bunster beste edozein zuri bezalakoa izango zela pentsatzen zuen, whisky edale ona, ankerra, lege egile, hitzezko gizona eta arrazoirik gabe inor joko ez zuena.

Ezagutze horretan Bunsterrek abantaila zuen. Maukiz behar zuen guztia zekien, eta haren jabe izan behar zuela pentsatze hutsean gozatzen zen. Bere sukaldariak, egun haietan beso bat hautsirik eta sorbalda bat irtenik zituela eta, Mauki sukaldean eta etxeko zerbitzuan jarri zuen.

Eta Maukik oso azkar ikasi zuen azal zuriko guztiak ez zirela berdinak. Itsasontzitik irten zen egun berean, nagusiak, Tongako Samisee misiolariari oilasko bat erosteko agindu zion. Baina Samisee aintziraz beste aldean zegoen, eta hiru egunetarako alde eginda zegoen. Mauki bere nagusiari adieraztera etorri zen. Igo zituen sarrerako eskailera piko haiek (etxea zutabe gainean eraikia baitzegoen) eta egongelara sartu zen. Salerosleak oilaskoa eskatu zion. Maukik misiolaria kanpoan zela esateko ireki zuen ahoa, baina Bunsterrek ez zuen arrazoirik entzuteko astirik hartu. Ukabilkada batez jo zuen. Kolpeak Maukiren ahoa harrapatu eta airean bota zuen. Ate ertzetik zalapartaka atera, eta galeria, barandaila hautsiaz gurutzatu eta hondarretan lurreratu zen. Haren ezpainak itxuragabeko masa batetan bihurtu ziren eta odolez eta hortz hautsiz beteta.

—Horrela ikasiko duzu. Niretzat erantzun txarrek ez dute balio! —oihu egin zion salerosleak, amorruz gorriturik, barandaila hautsitik begiratzen zion bitartean.

Maukik ez zuen inoiz horrelako gizonik ezagutu, eta une beretik kontuz ibiltzea eta inoiz ez iraintzea erabaki zuen. Bere eskifaiako gizonak nola zanpatzen zituen ikusi zuen eta nola betetzen zituen girgiluz, nola haietako bat, hiru egunez jan gabe utzi zuen ere bai, arraunean tolet bat hautsi zuelako. Auzoan zebiltzan zurrumurruek bere belarrietara iritsi ziren eta Bunsterrek bere hirugarren emaztea indarkeriaz hartu zuela jakin zuen. Lehenengoa eta bigarrena hilerrian zeuden, hilobi oinetan koral zatiz hornituriko hondar zurietan. Ziotenez senarrak emaniko jipoien ondorioz hil ziren. Hirugarrena, Maukik ikusi ahal izan zuenez, benetan jo eta iraintzen zuen. Ez zegoen gizon zital harekin asmatzeko modurik. Isilik bazegoen,

jo egiten zuen eta astakirten bat zela esaten zion. Hitz egiten bazuen, erantzuten ausartzeagatik. Ilun bazegoen, Bunsterrek azpijokoan ari zela salatzen zuen eta jipoi on bat ematen zion aurre-neurri gisa, eta alai eta irribarretsu agertzen bazen, bere jaun eta jabeaz barre egiteagatik zigortzen zuen, eta haga batez txikitzen zuen. Egiazko deabru bat zen Bunster. Hamaika aldiz hilko zuketen bertakoek ere hiru itsasontzietako historia gogoan ez balute. Hala ere, akabatuko zuketen Lord Howen gordetzeko zokoren bat egon izan balitz. Baina egoera hartan, gizon zuri bat hiltzea ezinezkoa zen, errudunak hilko zituzketen eta hain estimatuak zituzten kokoteroak moztu gudariek. Eskifaiako gizonak berak, itsasontzia, itzulaldiren bat egiten zuen lehen aukeran, prest zeuden itotzen uzteko. Baina Bunsterrek, arreta handia izan zuen, eta ez zuen itsasontzirik erabili.

Baina Mauki beste leinu bateko zen, eta deabru hura bizi zen artean ihes egiterik ez zegoela ikusirik, hura akabatzea erabaki zuen bere barnean. Baina horretarako ere ez zuen egokierarik ikusten, Bunster beti erne baitzegoen. Gau eta egun beti eskutan zituen errebolberrak. Ez zion uzten inori bere atzetik igarotzen, Maukik hori egiteagatik hartu zituen bizkarrekoak erakutsi zioten bezala. Bunsterrek berriz, bazekien Malaitako gizon lasai irribarretsu eta atsegin hura, atoloiko guztiak batera baino askoz ere arriskutsuagoa zela, eta horregatik pentsatutako tortura guztiak arretaz betetzen saiatu zen. Mauki bitartean, bere erabakiari zegokionez, arduraz ibili zen, zigorrak jasan zituen eta itxoin egin zuen.

Ordurarte gizon zuri guztiek errespetatu zituzten bere "tanboak". Baina Bunster desberdina zen. Astero Maukiri zegokion tabakoa, bi zotz, Bunsterrek bere emazteari ematen zion, haren eskutik hartzeko aginduaz morroiari. Maukik hori ezin zuenez, tabakorik gabe egon behar izaten zuen. Arrazoi beragatik egun askotan jan gabe geratzen zen. Behin batez, bere nagusiak aintzira ertzak gainezka zeuden txirla erraldoi haiez gisatu bat prestatzeko agindu zion. Maukik ez zion obeditu molusku haiek tabu zirelako beretzat. Sei bider ukatu zen, eta sei alditan jo zuen nagusiak zentzurik gabe utzi arte. Bunsterrek bazekien hori egin baino hiltzea ere nahiago zuela, baina haren ezetza matxinada baten ezaugarritzat jo zuen, eta une berean akabatuko zuen beste sukaldari batez trukatu ahal izan balu.

Saleroslearen denbora pasa onenetakoa, Mauki ileetatik hartu eta burua hormaren kontra joka ibiltzea zen. Beste batean Mauki oharkabe zegoela, haren haragietan zigarro piztu bat zapaldu

zuen. Honi “txertatzea” deitzen zion Bunsterrek eta Mauki oso maiz txertatzen zuen. Egun batez haserrealdia batean, sudurretik zintzilik zeraman katilu kirtena kendu zion, sudur mintza zarratatuaz.

—Hori duk muturra! —esan zion, muturrera begira.

Marrazo larrua lixapaper bezalakoa da, baina arrainarena latzagoa da oraindik ere. Hegoaldeko itsasoetan, txalupa eta arraunak leuntzeko lima bezala erabiltzen dute. Bunsterrek arrain azalezko mitoi bat egin zuen. Maukirengan probatu zuen lehen aldiaz, pasaldi bakar batez lepotik besazpira arteko azala larrutu zion. Bunster pozak zoraturik geratu zen. Gero emaztearengan frogatu zuen, eta eskifaiako bere gizonengan nahi bezala erabili zuen. Bi lehen ofizialak ere laztandu zituen eta irribarrea egin eta txantxetan hartu behar izan zuten.

—Barre egin ezazue madarikatuok! —esaten zien Bunsterrek.

Mauki izan zen mitoiaren ondorioak hobekien jakin zituena. Egun bat ere ez zuen igarotzen haren laztanik hartu gabe. Batzuetan larruketa hain handia izanik, minak lo egitea ere galarazten zion. Sarri Bunster adarjolea, ia erdi sendaturik zeukan larrua berriro haragi bizitan jarriaz jostatzen zen. Maukik egonarri ikaragarritz zain jarraitzen zuen, lehentxeago edo geroxeago ordua iritsiko zela bai baitzekien. Eta ordua iritsi zenerako bazekien ongi asko zer egin.

Egun batez, Bunster mundu guztiari bizkarrekoak emateko umorez jaiki zen. Maukirekin hasi eta berarekin bukatu zuen, tartean emaztea konorte gabe utziaz eta eskifaiako gizonak ere astinduaz. Gosaltzerakoan kafea ur hutsa zela esanez, irakitan zegoelarik, morroiaren aurpegira bota zuen. Baina, hamarrak aldera edo, hotzikaraz dardarka jarri zen Bunster eta ordu erdi bat geroago sukarretan kiskaltzen ari zen. Sukar hark ez zirudien txantxetako gauza. Laster paludismoaren sukarrak zirela konturatu ziren denak. Egunak joan eta egunak etorri Bunster ahultzen joan zen. Ezin zen ohetik altxa. Mauki zain zegoen eta erne bere larruazala normaltzen ari zen bitartean. Eskifaiako gizonen itsasontzia lehorreratu, garbitu eta konpontzeko agindu zien. Haiek agindua nagusiarengandik zetorrela pentsatzen eta obeditu zuten, baina une hartan Bunster konorterik gabe zegoen, eta ez zen ezer agintzeko gauza. Hura

zen Maukik itxaroten zuen egokitasuna, baina hala ere itxaron zuen. Gaitzaldiaren unerik larrienak igaro zirenean eta Bunster bere zentzu guztian, nahiz eta haur bat bezain ahul egonik suspertzen hasi zenean, Maukik bere kinkaileria guztiak, portzelana kirtena barne, bildu eta kutxa batean gorde zituen. Gero herrira joanik, errege eta bi lehen ministroekin hitz egin zuen.

—Gizon hori, Bunster, gizon ona, zuei gustatzen? —galdetu zuen.

Denek batera ezetz erantzun zioten. Ministroek heurei eginiko ez duintasun eta gehiegikerien letania luze bat errepikatu zioten. Erregea etsi ezinik negarrez hasi zen. Maukik zakarki etenarazi zizkion malkoak:

—Zuk zure herria gobernatu nahi. Zuri ez atsegin nagusi zuria. Niri ere ez. Zuk jarri ehun koko, berrehun koko, hirurehun koko kuterrean. Gero zuek lo egin. Kanaka guztiek lo egin. Zuek hots handi bat entzun etxean, eta ez esan entzun hots handia. Zuek lo asko egin.

Era berean Maukik eskifaiakoekin hitz egin zuen. Gero Bunsterren emazteari bere sendiarengana itzultzeko agindu zion. Nahi izan ez balu, Maukik arazo handia izango zuen, ez baitzion bere tanboak uzten eskuz ukitzen.

Etxea husturik, saleroslea erdi lotan zegoen gelara sartu zen. Errebolberrak kendu, eta eskuan arrain azalezko mitoia hartu zuen. Bunsterrek izan zuen haren lehen berria, sudurreko azala kendu baitzion kolpe batez.

—Ongi! Ederki! —barre egin zuen Maukik, laztan haiek Bunsterren kopeta haragia bizitan uzten zutelarik eta masaila urratzen zioten bitartean—. Egin ezak barre, madarikatu horrek!

Maukik arduraz egin zuen bere zeregina eta kanakak beren etxeetan gorderik, Bunsterren oihu bizi, garratz eta mingarriak entzun zituzten. Maukik bukatu zuenean, iparrorratza, fusilak eta munizio guztia jaitsi zuen kuterrera, eta gero tabakoz bete zuen. Lan honetan ari zela, itxura gabeko irudi bat haragi bizitan, etxetik irten eta oihuka hondartzarantz korrika abiatu zen, hondarretan bihurrituaz eta, marruka, eguzki kiskalgarritan erori zen arte. Maukik begiratu zion eta zalantzan geratu zen. Azkenik gerturatu eta burua moztu zion, lastail batean bildu eta

brankako leihatilan gorde zuen.

Kanakek egun luze eta bero hartan hain sakonki lo egin zuten, ez zuten kuterra itsas zabalera irteten ikusi eta, hego-sortaldeko haizeek eraginik, hego alderantz aldentzen ere. Inork ez zuen itsasontzi hura ibilaldi luze hartan ikusi Isabelgo itsasertzera inguratu zen arte, ez eta handik Malaitarainoko ibilaldi higuigarri hartan ere. Mauki Port Adamsen lurreratu zen inoiz gizon batek eduki ahal dezakeen baino tabako eta rifle gehiagorekin. Baina ez zen han geratu. Gizon zuri bati moztu zion burua, eta oihanak bakarrik eskain ziezaiokeen gordelekua. Horregatik, barreneko herrietara itzuli eta Fanfoa eta beste dozena erdi bat inguru hil zituen, eta ingurumari haietako buruzagi izendatu zuen bere burua.

Bere aita hil zenean, Maukiren anaiak gobernatu zuen Port Adams eta, itsasertzeko eta barreneko gizonek bat harturik, Malaitako gudu triburik indartsuena osatu zuten.

Maukik Britaniar Gobernuari baino beldur handiagoa zion Moonglean Xaboi Konpainia ahalguztidunari. Egun batez mezu bat iritsi zitzaion, Konpainiari zortzi urte eta erdiko lana zor ziola adieraziaz. Erantzuna baiezkoa izan zen, eta handik gutxira han agertu zen nahitaezko gizon zuria. Goletako kapitain bat zen, Maukiren erregetzaren garaietan oihanean sartu eta bertatik bizirik irten zen zuri bakarra. Eta ez bizirik bakarrik, baizik eta zazpiehun eta berrogeita hamar dolar urretan zituela, zortzi urte eta erdiko lanen ordain, eta beste rifle eta tabako kaxoi batzuk beterik.

Maukik ia ez zituen ehun eta hamar libera pisatzen. Bere urdailaren diametroa hirukoiztu da eta lau emazte ditu. Beste anitz gauza ere baditu: rifle eta errebolberrak, portzelanazko katilu baten kirtena, eta bertakoen buru sail galanta. Baina bere bildumako eredurik preziatuena, hondar koloreko ile eta bizar horixkadun buru bat da, ongi lehortu eta ondua, bere "laba-labarik" finenean bildurik gordetzen duena. Bere domeinutik kanpora gudura doan bakoitzean buru hori ateratzen du, eta bakardadean, bere belarrezko jauregian, luzaro eta handikiro begiratzen dio. Horrelako unetan, herrian, hilerrietako isiltasuna sortzen da, eta inor ez da ausartzen hots bakar bat ere egiten. Burua, Malaita guztiko talismanik eragileentzat jotzen da, eta Maukiren handitasuna hari esker dela pentsatzen da.

SALOMON UHARTE-MULTZO IZUGARRIA

Salomon uharte-multzo menderakaitzena dela esaten denean, ez dut uste gehiegikeria esaten denik. Bestalde, bada leku okerragorik munduan. Baina antzinako izaera eta gizona barru barrutik ezagutzen ez duen batentzat, Salomonak izugarriak gerta daitezke. Egia da, han sukarrak eta disenteria beti zelatan daudela, azaleko gaitz ikaragarriak daudela, airea bera ere pororik txipienetik, ebakidura edo urratuetatik sartu eta ultzera kaltegarriak sortzen dituen pozoi batez beterik dagoela, eta heriotzeari alde egiten dioten gizon sendoenak ere beren sorterrira erdi deseginik itzultzen direla. Egia da baita ere, Salomonetako bizilagunak giza haragijale asegaitz eta basati batzuk direla; joera makurrekoak direla. Beren kirolak berak ere, hain basatiak izanik, gizon bat atzetik harrapatu eta traizioz, aizkoraz jo kaskezurrean eta bizkarrezurra bera bitan zatituta uztera iristen zirela. Egia da, hau ere esan behar da, irla batzuetan, Malaitan adibidez, bertakoaren giza maila eta ospea, egin dituen erailketen araberakoa dela. Buruak, elkarren artean trukutzen dituzte, eta zurienak dira baliotsuenak. Badira dozena bat auzo, ilargiz-ilargi ondasunak pilatzen aritzen direnak, gudari ausart batek gizon zuri baten buru odoltsu eta freskoa aurkeztean, berari saritzat emateko.

Guzti hau, zalantzarik gabe, egia da, eta, hala ere, badira zuriak, uharte horretan hogeitaka urte pasa dituztenak eta alde egitean, nolabaiteko herrimina sentitzen dutenak.

Salomonetan bizi nahi duenak, zuhurtasuna eta zori ona behar ditu batez ere, baina gauza guztien gaintik, berezko sena behar du. Gizon zuriaren abentura izpiritua inprimatua eraman behar du bere barruan. Nahitaezkoa izan behar du. Zorigaitzari buruz, axolagabekeria noble batez jabeturik egon behar du, berebiziko harrokeriaz. Zuri batek astelehenetik igandera mila beltzek baino gehiago balio duela, eta igandean haietako bi mila berak bakarrik suntsituko lituzkeela arrazakeriaz jabeturik egon behar du. Hori baita beti ezinbestean gizon zuriak egin duena. A! eta beste gauza bat. Nahitaezko izan nahi duen zuriak menpeko arrazak arbuatu eta, honetaz gainera, ez du irudimen gehiegirik ere ukan behar. Ez ditu gehiegi ulertu behar ez sena, ez ohitura, ez beltz kupretsu horien buru prozesurik, ez baitu arraza zuriak bide hori sekula erabili mundua menperatzeko.

Bertie Arkwright ez zen nahitaezko. Sentikorregia, finegia zen eta irudimen gehiegi zuen. Inguruan gertatzen zenak gehiegi hunkitzen zuen eta horregatik, azkenik Salomon irletara joatea pentsatu zuen. Baina inoiz ez zuen han geratzea pentsatu. Bost astetako egonaldi bat, itsasontzi baten etorrera eta hurrengoaren irteera artekoa nahikoa izango zuen, bere izatearen azken izpiraino dardararazten zuen antzinatasun-dei hori asetzeko. Hau esan zien behintzat Makemboko turistei, nahiz eta beste hitz batzuek adierazi. Eta hauek heroi bat bezala gurtu zuten, turistak zirelako hain zuzen, eta ez zutelako ametsetan ere Salomonetatik igarotzean baporearen ontzigainak eskaintzen zuen babesaren uzterik pentsatzen.

Ontzian, andreak aintzakotzat hartu ez zuten beste pertsonaia bat bazihoan. Gizon txiki bat zen, zimurra eta iharra, azal zimel eta kaoba kolorekoa. Bidaiarien arteko zerrendan zein izenez zetorren ez zaigu gehiegi axola, baina irletan, Malu kapitaina, deitzen zioten eta bertakoek konjuruetarako erabiltzen zuten, eta nahikoa zen bere izena ahoskatzea haur ttipi bihurriak onbidera erakartzeko. Basatiak kolonizatu zituen, eta basaberea bera ere bai, eta itsaskui, sandalo, txirlarri edo perla, karey, tagua, intxaur, kopra, larre, biltegi eta landaketen artean ondasun izugarria lortu zuen. Horretarako bide guztiak erabili eta nozitu zituen: sukarrak, eskasiak, kapatazen zigorrak. Nahitaezkotasun gehiago zegoen Malu kapitainaren behatz txikienean, nahiz hautsia egon une hartan, Bertie Arkwrighten hezurdura guztian baino. Baina turistek itxura bakarrik epaitzen zuten, eta Berti zalantzarik gabe, gizon eder bat zen. Arkwrightek Malu kapitainarekin erretzaileen egongelan hitz egin zuen, eta Salomon irletako bizitza zimel eta odoltsuari aurre emateko bere ideiak azaldu zizkion. Kapitainak haiek asmo handiak zirela aitortu zion eta, batez ere, miresgarriak. Baina ez zen Bertiez benetan interesatu egun batzuk pasa arte, gazte abenturazalea 44 kalibreko pistola automatiko bat erakusten saiatu zen arte. Mekanismoak nola funtzionatzen zuten adierazi zion, eta zortzi kartutxo tanbor bat karga hutsean sartuaz froga bat egin zion.

—Oso erraza da —esan zion. Gero maratilaren kirtena tinkatu eta berriro askatu zuen— Horrela kargatu eta kokatua gelditzen da. Gero ez du gatilua abiadurarik handienean zortzi aldiz zapaldu besterik. Ikusten al duzu mekanismo hau? Pistola honetan hori da gehiena gustatzen zaidana. Oso segurua da. Ez dago istripu aukerarik —deskargatu egin zuen— Ikusten al duzu zein segurua den?

Eta danborra erakusten zion bitartean, pistolaren kanoiak entzulearen urdaila apuntatzen zuen. Malu kapitainaren begi urdinak paregabeki begiratzen zioten.

—Axolako al litzaizuke beste norabait apuntatzea? —galdetu zuen.

—Ez dago arriskurik —segurtatu zuen Bertiek— Danborra atera diot. Ez dago kargaturik.

—Pistolak beti daude kargaturik.

—Hau ez.

—Nolanahi ere aldera ezazu.

Malu kapitainak ahots tinko, gogor eta lehorrez hitz egiten zuen, baina bere begiradak ez zuen pistolaren kanoia utzi beste aldera zuzendu zuen arte.

—Bost dolar jokatuko dizut ez dagoela kargatua —proposatu zion Bertiek alai.

Besteak ezetz zioen.

—Orduan frogatu egingo dizut.

Bertiek kanoia bere burura gerturatu zuen gatilua zapaltzeko asmotan.

—Une bat —esan zuen Maluk lasaiki, eskua luzatuz— utz iezadazu ikusten. Itsasorantz apuntatu zuen eta gatilua zapaldu. Mekanismoaren klikaren hotsez nahasirik, leherketa handi baten hotsa entzun zen. Kartutxo-azal bat irten zen ontzigainera eroriz. Bertie ahozabalik geratu zen.

—Ez dut ulertzen nola gertatu den hori. Ederretik libratu naiz.

Irribarrea ahul bat egin eta ontzigaineko hamaka batera erori zen. Zurbil-zurbil geratu zen,

betondoetan biribil ilun batzuk azalduaz. Eskuak dardarka zituen eta zigarroa ezpainetara eramaten ez zuen asmatzen. Bizitza asko maite zuen, eta segundo batez, muinak kanpoan zituela ikusi zuen bere burua, ontzigainean ahospez etzanik.

—Egia, ez dakit zer esan...

—Oso arma polita da —esan zion Malu kapitainak pistola itzuliaz.

Gobernaria Sidneytik zetorren Makembon (itsasontziaren izena), eta haren baimenez itsasontzia Ugin lehorreratu zen misiolari bat uzteko.

Eta, halabeharrez, kaian Arla itsasontzia zegoen, Hansen kapitainaren agintepean. Malu kapitainak zituen itsasontzietako bat zen hori, eta honek gonbidaturik igo zen Bertie lau egunetan Malaitako itsasertza ezagutzera, ontzia harantz baitzihoan langileak kontratatzerara. Arlak gero Kemingeko soroetan utziko zuen (Malu kapitainarena hau ere) astebeterako, gero Tulagira iragateko, gobernariaren egonlekura, gobernariak gonbidatu baitzuen.

Malu kapitainak beste bi ohar egin zituen eta horrela gure kontakizunetik alde egiten du. Bat Hansen kapitainari eta bestea Harriwell jaunari, Reminge soroetako arduradunari. Biak gutxi gora behera antzekoak ziren. Arkwright jaunari Salomon irletako bizitza gogor eta odoltsuaren berririk eta ikuskizunik osorena emateko eskatu zien. Egun hartan Malu kapitainak, bisitari hura hainbeste txunditzen zela ikusirik, whisky botilaz betetako kaxak zituenaren zurrumurrua zabaldu zuen.

Barre pixkabat egin ondoren uharteetako arriskuak kontaktzen jarraitu zuen:

—Bai, Swartz beti izan zen oso kaskagorria. Begira: bere eskifaiako lau, Tulagira eraman zituen ofizialki zigortzeko, eta gero beraiekin txalupan itzuli zen. Kaitik irtetzean ekaitz batek harrapatu zituen. Txalupa pikutara joan zen, eta Swartz izan zen ito zen bakarra. Noski, istripu bat izan zen!

—Eglatan? -galdetu zuen Bertiek, elkarrizketan zeharo sartu gabe, lema zeraman beltzari begirik kendu gabe.

Ugi urruti gelditu zen, eta Arla udatiar-ontzia basoz beteriko Malaitako mendietarantz zihoan poliki-poliki.

Bertieren ardura osoa zuen lemazainak, sudurra zeharkatzen zion hiru pulgadako hiltze bat zeraman. Lepotik zintzilik galtzetako botoi pila bat. Belarri zuloetan lata gailu bat, hortzetako isipu hautsi baten kirtena, buztinezko pipa bat, erloju baten latoizko gurpil bat eta Winchester kartutxo batzuk. Bere bularra, soka batetatik zintzilikatutako portzelanazko plater erdi batek dotoretzen zuen. Ontzigainean, haren antzeko beste berrogeiren bat beltz zeuden, haietako hamabost eskifaiakoak. Beste guztiak langile hartu berriak ziren.

—Noski, istripu bat izan zen —esan zuen Jacobs, Arlako kontramaisuak, gizon ttipi, begi beltz eta marinel baino gehiago irakasle zirudienak — John Bedipi antzeko zerbait gertatu zitzaion. Zigortutako gizon batzuekin zetorren txalupa itzulikatu zenean. Baina berak bertakoek bezain ongi zekien igerian, eta hauetako bi ito egin ziren. Noski hau dena ustekabean gertatu zen.

—Hemen horrelako istripuak sarritan gertatzen dira —esan zuen kapitainak— Ikusten al duzu lema daraman gizon hori, Arkwright jauna? Gizajale bat da. Duela sei hilabete berak eta eskifaiako besteek Arlako kapitaina ito zuten. Hementxe bertan gertatu zen, bai jauna, txopan, atze hagaren ondo ondoan.

—Ontzigaina, egoera izugarrian geratu zen —esan zuen kontramaisuak.

—Ongi entzun ote dut...? —erantzun zuen Bertiek.

—Bai, ongi entzun eta ulertu duzu —esan zuen Hansen kapitainak— ustekabean ito zen.

—Baina, ontzigainean?

—Horixe bada, hementxe. Ez zait axola zuri esatea, baina isilpean noski, aizkora batez baliatu ziren.

—Eskifaia honek berak?

Hansen kapitainak buruz baieztatu zuen.

—Lehengo kapitaina oso axolagabea zen —agertu zuen kontramaisuak— Bizkarra eman besterik ez zuen egin, kolpea eman ziotenean.

—Ez dugu inongo babesik —esan zuen Hansenek— Gobernuak beti beltzari ematen dio arrazoa. Zuria ezin daiteke tiroka hasi. Bertakoari defendatzeko erosotasun guztiak ematen dizkio, edo bestela eraileztat jo eta Fijira bidaltzen dute. Horregatik gertatzen dira hainbeste ustekabeko itotze.

Afaltzeko deia egin zuten eta Bertie eta kapitaina behera jaitsi ziren, kontramaisua ontzi gainean zaintzen utzita.

—Ez ezazu bistatik gal Auiki deabru beltz hori —esan zion kapitainak agurtzerakoan— azkeneko egun hauetan daukan itxura ez zait batere gustatzen.

—Nire kontu — esan zuen kontramaisuak.

Afaria zerbitzatzen hasi ziren, eta kapitaina Scottish Chiefs-en gertaturiko triskantzaren historia kontatzen ari zen.

—Itsasertz guztiko ontzirik onena zen —zion—. Baina arrezifera iritsi baino lehen, kanoak bere atzetik irten ziren. Ontzian bost gizon zuri eta eskifaia zihoan, Santa Kruz eta Samoako hogeitabat gizonoz osatua. Bizirik zamazaina bakarrik irten zen. Gainera, orduan kontraturiko hirurogeiak zeramatzaten. Denek “kai-kai” bukatu zuten. Barkatu, jan egin zituztela esan nahi dut. Eta gogora ezazue James Adwarsen kasua, hain marinela trebe...

Baina une hartan ontzi gainera kontramaisuaren biraoa, eta ondoren oihera basatien koru bat bere belarrietara iritsi zen. Hiru errebolber tiro entzun ziren eta gero murgilaldi baten hotsa. Kamerako eskilarak salto batez igo zituen Hansen kapitainak. Bertie harriturik geratu zen ontzi

gainerantz zihoan bitartean errebolberra nolako abiaduraz ateratzen zuen ikusirik. Gero jarraitu egin zuen, zuhurrago, kamerako atetik burua atera edo ez zalantzan. Baina ez zen ezer gertatu. Kontramaisua, errebolberra eskuan zuelarik dardaraz eta sutan zegoen oraindik. Aurrerantz abiatu zen eta, ba patean, mugimendu zakar batez, atzetik arriskuren bat balu bezala, itzuli zen.

—Bat kareletik erori da —esan zuen tentsioz beteriko ahots nabari batez— Ez zekien igeri egiten.

—Nor zen? —galdetu zuen kapitainak.

—Auiki —izan zen erantzuna.

—Baina nik tiroak entzun ditut —esan zuen Bertiek hotzikaraz dardarka, guzti hark abentura usaina baitzuen, pasatako abentura bat zorionez.

Kontramaisua oihuka jaurtiki zitzaion:

—Hori gezur madarikatu bat da! Ez da tiro bat bera ere bota! Beltza bordatik erori da.

Hansen kapitainak zuzenki begiratu zion Bertieri, ongi zabalduriko begi beltz eta distiratsuz.

—Ba, niri hori iduritu zait... —hasi zen Bertie.

—Tiroak? —esan zuen Hansen kapitainak oharkabea— tiroak entzun dituzula esan al duzu?

—Entzun al duzu zuk tirorik Jacobs jauna?

—Bat ere ez — esan zuen honek.

Kapitainak bere gonbidatuari garaile gisa begiratu zion eta esan:

—Garbi dago istripu bat izan dela. Jaitsi gaitezen Arkwright jauna eta buka dezagun afaria.

Gau hartan kapitainaren gelan lo egin zuen Bertiek, gela nagusiaren ondoan kokaturiko beste txipi batean. Brankako babesean rifle erakusketa batez dotoreturik zegoen. Beste hiru gehiago zeuden literatik zintzilik. Azpian, Bertiek ikusi ahal izan zuenez, munizioz, dinamitaz eta detonagailu kaxaz beteriko kutxa bat zegoen. Beste aldean kokaturiko sofan etzatea erabaki zuen. Mahai gainean eta leku nabarmenean itsasaldien egunkaria zegoen. Ez zekien Malu kapitainak gertakizun honetarako bereziki prestatu zuenik. Horregatik benetan kikildurik irakurri zuen nola irailaren hogeita batean bi ontzi-lagun kareletik erori eta ito ziren. Lerro tartean, istripu batez gainera, azpikeria asko egon zitekeela sumatu zuen.

Arla baleontzian, Su-u-n, hiru gizon galdu zituen segada batean erori zela irakurri zuen, kapitaina Fulko sukaldaria itsasertzean eskifaiak erositako giza haragia prestatzen harrapatu zuela, eta dinamitak ustekabean keinuak egiten ari zen marinel bat hil zuela. Gauetako erasoak, kaietatik gau erdian eginiko ihesetik, manglar aintzira barreneko gizonak eta leku zabalagoetan ur gazitako gizonak eginiko erasoen berriak irakurri zituen. Oso maiz disenteriak eraginiko hilketak aipatzen ziren. Asaldaturik konturatu zen, Arla barnean bera bezalako bi gonbidatu hil zirela gaitzak jota.

—Adizu ba... —esan zion Bertiek kapitainari hurrengo goizean — itsasaldiko egunkariari gainbegiratu bat bota diot.

Kapitainak edonor hain erraz ikusteko eran uzteagatik bere damua agertu zuen.

—Eta disenteria hori, ba al dakizu? Gezur hutsa iruditzen zait. Istripuz itotako hainbaten kontu hori bezala — jarraitu zuen Bertiek— Zein izan zen heriotza horien benetako arrazoia?

Kapitainak, gonbidatuaren zorrotasuna goraipatuaz, haren susmoen ezezko formala adierazi, baina azkenik airoski amore eman zuen.

—Hara! esango dizut Arkwright jauna. Nahiko ospe txarra dute lehendik ere uharte hauek. Egunetik egunera zailagoa zaigu ontzi lagun zuriak kontratatzea. Jo dezagun gizon bat hiltzen

dutela. Konpainia, diru pila bat eman beharrean aurkitzen da. Baina hori bai, gizon hori gaixotasunez hiltzen bada, orduan ez dago inongo arazorik. Berriek ez diete beldurrik gaixotasunei. Nahi ez dutena erahilak izatea da. Lanbide hau hartu nuenean, nire aurreko kapitaina disenteriaz hil zela uste nuen. Gero beranduegi zen. Kontratua sinatuta zegoen.

—Gainera —erantsi zuen Jacobsek- itotako gehiegi gertatzen ziren. Susmagarria inolaz ere. Errua Gobernuarena da. Zuriak ez du beltzarengandik babesteko egokitasunik.

—Hori. Gogora ezazue Princessen bertako kontramaisuari gertatua — esan zuen kapitainak bere historiari hasiera emanez. — Bidaia hartan, Gobernuko agenteaz gainera, bost gizon zuri zihoazen. Kapitaina, agentea eta lemazaina bi txalupatan lurreratu ziren. Bigarrena eta kontramaisua ontzian geratu ziren hamabosten bat marinelekin, denak Tonga eta Samoakoak. Itsasertzetik beltz jendetza handi bat iristen zen. Kontramaisuak, zer gertatzen zen konturatu nahi izan zenerako, bigarrena eta eskifaia guztia lehen erasoan hilak izan ziren. Hiru kartutxera eta bi Winchester hartu eta gurutzetara igo zen. Bizirik irten zen bakarra bera izan zen, kontramaisua, alegia, eta oraindik ez da gaurdaino bere onera bihurtu. Behin eta berriro tiro egin zuen eskua jasan ezineko berotasunera iritsi arte, eta beste fusil bat erabiltzera beharturik egokitu zen. Ontzigaina beltzez beterik zegoen. Dena garbitu zuen. Kareletik salto egiten zuten, eta besteak botatzen zituen; eta kanoetako arraunak hartzen zituzten eran berdin jarraitu zuen. Beltzek uretara salto egin zutenean eta igerian hasi zirenean, amorrazioaren amorrazioz doenerdi gehiago hil zituen. Eta zer sari eman zioten?

—Zazpi urte Fijin — esan zuen kontramaisuak. Gobernariak esan zuena zera izan zen: alegia, behin beltzak uretara salto eginez gero, ez zegoela tiro egiten jarraitu beharrik — adierazi zuen kapitainak.

—Horregatik orain disenteriaz hiltzen dira —gehitu zuen kontramaisuak.

—Nork esango zukeen! — zioen Bertiek, barreanean txangoaldia lehenbailehen buka zedin irrikatuz.

Geroago, egun hartan bertan, gizajale beltz harekin hitz egin zuen. Sumasai zeritzan. Hiru urte

Queenslandeko soro batean iragan zituen. Samoa, Fiji eta Sidney ezagutzen zituen, itsaso haietan langileak kontratatzen zebiltzan itsasontzietan. Berritsu bat zen, eta kapitainaren asmoak igarriak zituen.

Bai, gizon asko jan zituen. Zenbat? Ez zekien. Bai, zuriak ere bai. Oso haragi ona zuten osasuntsu zeudenean. Behin gaixo bat jan zuen.

—Nik egia esan — esan zuen gogoratzean — Ni asko gaixotu hura bezala. Nire urdaila gehiegi higitu.

Bertie dardaratu egin zen eta haien buru gordeetaz hitz egiten hasi zen. Bai, Sumasaiak oso ongi lurperaturik zituen, eguzkitan lehortuak eta kez ondurik. Haietako bat itsasontzi bateko kapitainarena zen. Bibote luzeak zituen. Bi libera esterlinetan saltzeko prest zegoen. Beltzen buru bakoitza dolarrean eman zezakeen. Bazituen beltz txikien buru batzuk ere, baina nahiko egoera txarrean eta hamar txelinetan utz ziezaiokeen.

Bost minutu geroago, Bertie ontzi gainean azaleko gaitz izugarri bat zeukan beltz baten ondoan egokitu zen. Aldendu eta gero, zer zuen gizon hark galdetu zuenean, legena zela esan zioten... Berehala jaitsi zen gelara eta xaboi desinfektatzaile batez garbitu zuen bere burua. Egunaren buruan sarritan errepikatu zuen zeregin hori, ontziko beltzik gehienak era bateko nahiz besteko ultzera txarrak baitzituzten.

“Arla mangle” istinga baten erdian hondoratu zenean, karelean bi ilarako burdinsarea jarri zuten. Gauza larria zen, eta Bertiek bertakoen kanoak hondartzan bata bestearen ondoan, lantzaz, arkuz, geziz eta Snidersez armaturik ikusi zituenean, inoiz baino gehiago desiratu zuen ibilaldi hura bukatzea. Arratsalde hartan ontzira igo zirenek, ilunabarrean ez zuten jaitsi nahi. Haietako batzuk erantzun txarra eman zuten lurrera joateko eskatu zitzaizenean.

—Ez zaio axola. Nire kontu hori —esan zuen kapitainak gelako eskilaratik ezkututzen zelarik. Itzuli zenean, hamuan loturiko dinamitazko kartutxo bat erakutsi zion Bertieri, paperetan bilduriko klorodina botila batek itxurazko metxa bat jarriaz gero, edonor engaina dezake. Bertie, zeharo engainatu zuen, eta bertakoak ere bai. Hansen kapitainak metxari su eman eta

bertako baten gerripekoaren atzeari zintzilikatu zuenean, azken honi izuaren izuz, gerripekoa kentzea ahaztu zitzaion. Korrika abiatu zen, atzetik metxa txinpartaka eta zihiztaka zeramalarik, lagunaren artean sekulako larritasuna sortuaz, eta berak egiten zuen salto bakoitzean, lagunak sare gainetik beren burua uretara botatzen zuten. Bertie izaturik zegoen. Hansen kapitaina ere bai. Egun hartan, bakoitzari aurrez hogeita hamar txelinen truke kontratatu zituen hogeita bost gizonen ahaztu baitzen. Horrela hauek ere beste guztiekin batera uretara joan ziren, etengabe txinpartaka zegoen metxaz, klorodina botila zeramana, atzetik zutela.

Bertiek ez zuen botila lehertzen ikusi, baina kontramaisuak une egokian inori minik egin ez ziezaiokeen lekuan, benetako dinamita kartutxo bat leherrarazi zuen, eta horregatik Almirantazgoko edozein epaimahairen aurrean zin egingo zukeen beltz bat mila zatitan hegaka ikusi zuela.

Kontrataturiko hogeita bost gizonen ihesa, Arlari berrogei libra esterlina kosta zitzaion. Irla barneko oihanera alde egin zuten, eta horregatik ez zegoen berreskuratzeko itzaropenik. Kapitainak eta kontramaisuak beren nahigabeak te hotzetan itotzea erabaki zuten. Whisky botilatan zerbitzatzen zen te bat zen hau, beraz Bertiek ez zuen jakin ahal izan hainbesteko antsiaz edaten ari zirena alkohola zen ala ez. Baina laster ikusi zituen gizon haiek zeharo mozkortuta eta hitz-jario izugarrien artean mila zatitan xehetu zen beltzaren heriotza istripu bat ala disenteria izan ote zen argitzen. Bi gizonak zurrunka hasi zirenean, Bertie izan zen, ontzi barnean geratzen zen gizon zuri bakarra, eta horregatik egunsentira arte goardia arriskutsu bat egin zuen irlakoen eraso gogor edo eskifaiaren matxinadaren beldurrez.

Hiru egun gehiago igaro zituen Arlak itsasertzean eta kapitainak eta kontramaisuak beste hiru gauetan te hotzez leporaino bete ziren, Bertie goardian utziaz. Bertierengan fida zitezkeen, honek, estualdi hartatik bizirik irteten bazen, Malu kapitainari mozkor haien berri emango ziola zekien bezala. Azkenik Arla Reminge soroetan geratu zen, Guadalkanalaren. Bertie lasaitu zen azkenean oinak lurraren gainean jarri zituenean, eta administratzailea agurtu zuen eskua emanaz. Harriwell jauna ongiatorria egiteko prestaturik zegoen.

—Ez zaitetz harritu mutilak uzkur samar ikusten badituzu —esan zion bazter batera eramanez isilean hitz egiteko— Matxinada baten susmoa dago. Bi edo hiru zantzu ikusi ditudala onartzen

dut, baina niretzako sasi alarma bat dela iruditzen zait.

—Zenbat beltz dago soroetan? —galdetu zuen Bertiek nahiko asaldaturik.

—Une honetan laurehun — erantzun zion Harriwell jaunak axolarik gabe— baina gu hiruron artean, zu, Arlako kapitaina, eta kontramaisuaren artean erraz menpera ditzakegu.

Bertie, Mc Tavish zeritzan bati eskua emateko itzuli zen. Intendente zen, agur motza izan zen, beste honek dimisioa eskatzeko presa handia baitzuen.

—Harriwell, gizon ezkondua naizenez ez dezaket hemen denbora gehiagorik pasa. Hemen zerbait sumatzen da, zure aurpegian ikusten dudan sudurra bezain argi dago. Beltzak matxinatu egingo dira, eta Remingen, Hohonon gertatu zen triskantza errepikatuko da.

—Zer triskantza? — galdetu zuen Bertiek, soroetako administratzaileak intendentea hilabetea bukatu arte geratzeko konbentzitu ondoren.

—Isabel irlako Hohonoko landaketaz hitz egin du —esan zuen administratzaileak—Beltzek, lehorrean zeuden bost zuri hil zituzten, itsasontzia hartu, kapitaina eta kontramaisua garbitu, eta Malaitara alde egin zuten. Baina beti esan izan dut Hohonon gertatu zena gertatu bazen, arduratu ez zirelako izan zela. Hemen ez gaituzte lotan hatzemango. Zatoz Arkwright eta ikus ezazu galeriatik azaltzen den panorama.

Bertiek ez zuen panorama ikusteko gogorik, eta Tulagira, Gobernariaren etxera, nola ihes egin pentsatzen kezkatu zegoen. Gogoetan zegoela atzean oso gertu, rifle baten tiroa entzun zuen. Harriwellek arrastaka bizian eraman zuen barrura, tiraka ia besoa atera ziolarik.

—Izugarria izan da gizon! Kasualitatez salbatu zara! —esan zion zauritua ote zegoen begiratzen zion bitartean— Ez dakizu zer kezkatu nagoen. Egun argitan. Ez nuen pentsatu ere egingo...

Bertie zurbiltzen hasi zen.

—Horrela hil zuten aurreko administratzailea — esan zuen Mc Tavishek— Eta zuk bazeneki nolakoa zen gizon hura! Galeria honetan bertan atera zizkioten garunak. Ikusi al duzu eskilara eta ate artean dagoen mantxa iluna?

Bertiek ez zuen ikusten Harriwellek berarentzat prestatu eta eskaintzen zion edaria hartzeko une egokirik. Dastatu baino lehen, polainak eta zaldiketarako galtzak zituen gizon bat sartu zen.

—Zer gertatzen da orain? —galdetu zion administratzaileari, etorri berriari begirada arin bat bota ondoren— Ibaia igo al da berriro?

—Zer ibai eta zer ibai ondo! Beltz bat izan da. Landare tartetik irten da, ni nengoen lekutik dozena bat urrats eskasetara geratu eta tiro bat bota dit. Snider bat zuen eta hanka gainean indar eginez tiro egin du: Nondik atera duen riflea jakin nahi nuke! Ah, barka ezazu Arkwright jauna! Pozten naiz.

—Brown jauna nire laguntzailea da — esan zuen Harriwellek— Orain kopa bat har dezagun.

—Baina, nondik atera ote du Snider hori? —berresan zuen Brownek— Beti arma tipo hori edukitzearen aurka egon naiz.

—Ba... hemendik ez — esan zuen Harriwellek oso haserreturik.

Brownek irribarre maltzur bat egin zuen.

—Ea, goazen ikustera! —administratzaileak.

Bertiek besteen atzetik bulegoraino jarraitu zuen, eta han Harriwellek hautsez beteriko bazter batean zegoen kaxoia seinlatu zuen garaile aurpegia jarriaz.

—Orduan nondik atera dute Sniderra alu horiek? —berresan zuen Brownek.

Baina une hartan bertan Mc Tavishek kaxoia lurretik altxatu zuen. Ostikada bat jo eta estalkia kendu zion. Hutsik zegoen. Denak harri eta zur geratu ziren isiltasunik handianean. Harriwell zurbildurik zegoen. Eta Mc Tavish biraoka.

—Beti esan dudana. Ezin daiteke morroiez fida.

—Hau gogorra da — esan zuen Harriwellek— baina irtengo gara estuasun honetatik ere. Beltz odolgabe hauek susto on bat behar dute. Jaunak, ekar itzazue zuen rifleak jangelara. Eta zuk Brown, presta itzazu berrogei edo berrogeita hamar dinamita kartutxo. Metxa motzekin. Guk erakutsiko diegu. Eta orain jaunak, afarria zerbitzatua dago —

Bertie, zerbaitez nazkatzen bazen, kurryz nahasiriko arrozaz zen, eta horrela itxura ederreko tortila bat hartu zuen. Bukatu orduko Harriwellek hartu zuen zati bat. Dastatu orduko oihuka bota zuen.

—Bigarren aldia da — esan zuen Mc Tavishek higuinez.

Harriwellek botaka eta oihuka jarraitzen zuen.

—Zeri buruz ari zara? — galdetu zuen Bertiek dardarti.

—Pozoia —izan zen erantzuna— Sukaldari : hori urkatu beste biderik ez dago. Horrela hil zen Kabo Marsheko kontalaria — esan zuen Brownek—. Heriotz izugarria izan zuen. Jessien diotenez, hiru milatara ere entzuten ziren haren garraisiak.

Sukaldari hori girgiluz josiko dut — esan zuen Harriwellek— Zorionez garaiz harrapatu dugu.

Bertiek higitu ezinik jarraitzen zuen. Aurpegia kolorerik gabe geratu zitzaion. Hitz egin nahi zuen, baina ulertu ezin zen gurgurketa bat besterik ez zitzaion irten. Denek larriturik begiratu zioten.

—Ez iezadazu esan, ez iezadazu esan! — oihu egin zuen Mc Tavishek ahots tinkoz.

—Bai tortila jan dut, eta asko. Platera beterik — esan zuen Bertiek bat-batean hatsa berreskuratu duen murgilari batek esango zukeen eran.

Isiltasun izugarri hark, minutu erdi bat iraun zuen. Bertiek denen begietan irakurri zuen bere etorkizuna.

—Beharbada ez dago pozoiturik — esan zuen Harriwellek bare-bare.

—Deitu sukaldariari—agindu zuen Brownek.

Eta belarri eta sudur zulatuak zituen beltz irribarretsu bat agertu zenean:

— Wi-Wi Zer izan honek? — oihu egin zuen Harriwellek tortila erakutsiaz.

Wi-Wi, noski, ikaraturik eta izaturik geratu zen.

—Orain “kai-kairentzat” — esan zuen aitzakia bila.

—Janarazi iezaiozu — esan zuen Mc Tavishek. Hori da frogarik onena.

Harriwellek goilare bat tortilaz bete, eta sukaldariarengana jauzi egin zuen, hau izututa korrika irteten zelarik.

—Horrekin dena esana dago —izan zen Brownek eman zuen epaia—Ez du probatu nahi.

—Brown, prestatu nahi al dituzu girgiluak? Harriwell alai itzuli zen Bertierengana — Ez zaitez estutu. Gobernariak zuzenduko ditu kontuak, eta ziur egon, zu hiltzen bazara, urkatuko dutela.

—Ez dut uste hori egingo dutenik — esan tuen Mc Tavishek.

Baina jaunak... jaunak... — oihu egin zuen Bertiek— Bitartean nitaz pentsa ezazue...!

Harriwellek sorbaldak jaso zituen gupidatuaz.

—Sentitzen dut lagun, baina ez dugu ezagutzen bertakoek erabiltzen dituzten pozoien aurkako sendagarririk. Baretu zaitez eta... ez dakit ba...

Kanpoan, entzun ziren bi rifle tirok eten zuten elkarrizketa. Brown sartu zen, bere Winchesterra kargatu eta mahaian eseri zen.

—Sukaldaria hil da — esan zuen — Sukarrak izan ditu. Berehalako eraso bat.

—Arkwright jaunari esaten ari nintzaion ez dugula bertakoen pozoiauren aurkako sendagairik ezagutzen...

— Ginebra salbu — esan zuen Brownek.

Harriwell mugimendu geldo eta arreta gabekoak eginaz botila baten bila abiatu zen.

—Kontuz gizona, kontuz — esan zion Bertieri, ginebraz beteriko basoa ia trago batez hustu baitzuen, eta alkoholaren indarra kontra eztarrira joanda, eztulka hasi zen masailak malkotu arte.

Harriwellek pultsua eta hozberoa hartu zion, harrokeriarik handienaz zaindu, eta tortila hura pozoitua ote zegoen zalantza egiten zuen. Brown eta Mc Tavishek ere antzeko hitzak esan zituzten, baina Bertiek haien hitzetan halako doinu faltsu bat nabaritu zuen. Goseak amen batean aldegin zion eta mahaian ezkutuan pultsua hartzen zuen. Zalantzarik gabe abiadura gehitzen zihoan, baina ez zion ginebrarengatik izan zitekeela ere burutik pasa. Mc Tavish, riflea eskutan, galeriara irten zen, inspekzio begirada bat egitera.

— Sukaldean ari dira biltzen alu horiek—esan zuen itzuleran— eta rifle pila bat dute. Onena isilka inguratzea izango da, eta albotik erasotzea. Beharrezkoa da aurrea hartzea. Nirekin etorri nahi al duzu Brown?

Harriwellek jaten jarraitu zuen, eta Bertie bere pultsuaren abiadura azkarren beldur zen. Rifleak sutan hasi zirenean, erne egon arren, derrigorrezko jauzi egitera behartuak ikusi ziren. Snideren tiroen gainetik, Brown eta Tavishen Winchesterren mailukadak entzuten ziren, batzuk eta besteak oihu eta deiadar deabruen tartean.

—Sakabanatu dituzte — zioen Harriwellek, ahots eta tiroen hotsa urruntzen zihoan eran.

Brown eta Mc Tavish mahaian eseri orduko, honek zera esan zuen:

—Dinamita daukate.

—Orduan, eraso ditzagun guk ere dinamitaz — proposatu zuen Harriwellek.

Bakoitzak dozena erdi bat kartutxo patrikan sartu, eta puruak piztu ondoren, aterantz abiatu ziren.

Une horretantxe gertatu zen. Geroago Mc Tavish jotzen zuten errudun eta honek ere karga gehiegizkoa izan zela aitortu zuen. Edozein eratarata ere, egia dena zera da, alegia etxapean lehertu zela, hau albotik altxa, eta berriro oinarri gainean geratu zela. Mahai gainean zeuden plateren erdiak mila zatitan xehetu ziren. Zortzi egunetako korda zuen ordularia ere bat-batean gelditu zen. “Mendekua” oihukatuaz, hiru gizonak kanpora irten ziren eta bonbaketa hasi zen gauerdian.

Itzuli zirenean, ez zuten aurkitu Bertie. Administratzailearen bulegoraino arrastaka joan zen, eta, barrikada bat eraikirik, bertan gorde zen. Han lurtean etzanik eta ginebraz beteriko lo kuluxka goxoan murgildurik zegoen bitartean, mila heriotza gertatu ziren bere inguruan borrokaldi ausart hark eraginda.

Goizean, urdaila nahasirik eta buruko minez, bere gordelekutik irten zenean eguzkiaren dirdira eta Jainkoaren boterea sekula baino handiagoak iruditu zitzaizkion, bere gonbidatzaileek bizirik eta onik jarraitzen baitzuten.

Harriwellek soroetako bere egonaldia luzatzeko eskatu zion, baina Bertiek behin eta berriz Arlan Tulagirantz berehala itsasoratzea nahi zuen, eta horretan lehiatu zen. Han, ez zen Gobernariaren etxetik aldendu, lehen baporearen abiatze eguna iritsi zen arte. Ontzian emakume turistak zihoazen, eta Bertie berriro ere heroi bezala kontsideratzen zuten, Malu kapitaina, beti bezala, ilunpean geratzen zelarik. Baina Sidneytik, aurkitu ahal izan zuen eskoziar whisky onenetik, bi kaxoi bidali zituen, bata Hansen kapitainarentzat eta bestea Harriwellentzat, Salomon irletan ahantz ezinezko bizipen hartan hainbeste lagundu ziotelako.

NAHITAEZKO GIZON ZURIA

—Beltza beltz den bitartean eta zuria zuri, ez dago bien artean ulertzeko modurik.

Horrela hitz egiten zuen Woodward kapitainak. Apian ginen Charley Robertsen tabernako egongelan eserita, eta lehen aipaturiko tabernariak prestatu zizkigun “Abu-Hameds” ak edanez, hark zioenez Steevensengandik zuzenean jasoriko errezeta batez eginak. “Kitcherrek in Jartumera”ren egilea, eta Ladysmithako setioaldian hil zuten Steevens ospetsua, Nilon egarriak larriturik, edaria asmatu zuelako.

Woodward kapitaina, txikia, biribila eta adinekoa zen, berrogei urtetako eguzki tropikalez errea. Inoiz gizon baten aurpegian ikusi diren gaztaina koloreko begi ederrenez hornituriko gizon hark eskarmentuaz beterik hitz egiten zuen. Bere buru gain soildua beltzen aizkorakaden orbainez josita zegoen, halakoa izan baitzen haiekin lortutako adiskidetasun mina; begiratu besterik ez zegoen bere lepoko eskuin aldea, aurretik, atzetik, nonahitik eta batik bat buruan sartu zioten gezia atera zuen lekua. Hura gertatu zitzaionean, berak zioenez, oso presaka omen zihoan eta azkonak korrika egitea galarazten zionez, muturra hausteko geratu ezin, eta sartu zen bezala atera omen zen. Orain Sabaiiren kapitaina zen. Sartaldeko irletan langileak bildu eta Samoako soro alemanetara eramaten zituen bapora bat zen hau.

—Liskar erdien errua zuriena da — esan zuen Robertsek, “Abu-Hameds”en zurrupada batzuk edateko geldione bat eginez eta Samoar zerbitzaria samurki madarikatuz —. Beltzek nola pentsatzen duten ulertzen pixka bat saiatuko balira, arazorik larrienak erraz zuzenduko lirateke.

—Ezagutu ditut batzuk, beltzak ulertzen zituztela ziotenak — erantzun zion kapitainak — eta hauek izan dira beti “kai-kai” (janda) bukatu duten lehenengoak. Hor dituzu Ginea Berri eta Hebrida Berrietako misiolariak, Erromanga irlako martiriak eta beste guztiak. Oroi zaitez zer gertatu zitzaizen Salomonetan zatikatu zituzten austriar espedizio hartako kideei. Gudalkanaleko oihanetan, eta beste hainbat eta hainbat merkatariei. Hogei urtetako eskarmentua bizkarrean zeramatarik, eurei inork ez zezakeela ezer egin uste zutenak berak

ere, gaur egun haien buruek bertakoen kanoa-etxeak dotoretzen dituzte. Hor duzu Johnny Simonsen gertakizuna ere. Hogeita sei urte zeramatzan Melanesiako itsasertzak korritzen. Bertakoengan liburu ireki batean bezala irakurtzen zuela zin egiten zuen, eta inoiz ez zutela hilko, eta hala ere Georgia Berriko Marobo aintziran hil zen. Beltz pare batek moztu zioten burua, Mary (emakume) batek eta hanka bat geratzen zitzaion zahar batek, bestea marrazo baten ahoan geratu baitzitzaion aurrez dinamitaturiko uretan arrantzuan zebilela. Eta gogora ezazu Bily Warts, bertakoak erahilez ospetsu egin zena, eta etsaia berbera ikaratzeko gauza zena. Oraindik ere oroitzen naiz. Kabo Littlen lurreratu zenean, Irlanda Berrian, gehienez hiru dolar eta erdi kosta zitzaion tabako kaxa erdia ohostu zioten. Mendekuz, itzuli eta sei beltz erahil zituen, euren gudu kanoak puskatu eta bi auzo erre. Eta han bertan izan zen, Kabo Littlen, lau urte geroago arrantzan ari zela beste berrogeita hamar lagunekin. Bost minututan hilda zeuden denak, kanoa batetan aldegin zuten hiru gizon ez beste. Ez zaitez etorri kontu zaharrak esanez. Gizon zuriaren lana mundua kolonizatzea da, eta horrekin dena esanda dago. Uste al duzu beltzak ulertzeko denborarik geratzen zaionik?

—Hori egia da — esan zuen Robertsek—, eta bestalde ez da hain beharrezkoa ere. Hain zuzen ere zurien astakeria, mundua kolonizatzeak eskatzen duena besterik ez da izan.

—Eta beltzen bihotzetan Jainkoarenganako beldurra finkatzea izan da bestea — esan zuen Woodward kapitainak —. Beharbada Robertsek arrazoia du. Astakeria asko egin duelako atera da garaile eta, zalantzarik gabe, astakeria horren alderdi bat beste arraza batzuk ulertzeko gai ez izatea da. Baina gauza bat da garbia: ulertu ala ez ulertu, zuriak beltza baztertu behar duela. Nahitaezko prozesu bat da. Patua da.

—Eta noski, gizon zuria ezinbestekoa da. Beltzaren patua da — esan zion Robertsek—. Esan iezaiozu edozein zuriri txirlarriak edo perlak daudela milaka gizajale oihulari eta izurrituen aintzira batean, eta berehala joango da, kronometro bat harturik eta dozena erdi bat kanaka murgilarirekin, denak sardinak latan bezala esturik, bost tonako ketxe zabal batean. Belarri ertzera esan iezaiozu iparburuan urrea aurkitu dutela, eta azal zuridun hori, nahitaezko izaki hori, luzamendurik gabe irtengo da, pala, pikotx eta azken aurrerapen guztiekin. Eta gehiago oraindik, bere helmugara iritsiko da. Jakinarazi iezaiozu diamanteak daudela infernuko horma kiskalgarrietan, eta gizon zuriak horma horiek eraso eta Satan berbera ere lanean ipinaraziko

du bere pala eta pikotxez. Hor duzu astakeria eta nahitaezko izatearen ondorioa.

—Baina nire buruari galdetzen diodana hau da: zer pentsatzen ote duen beltzak nahitaez tasun horretaz? —esan nien.

Woodward kapitaina isilka barrez hasi zen. Bere begietan oroitzapen baten irudia nabaritu zen.

—Une honetan zer iritzi ote zuten, eta edukiko duten, Maluko beltzek pentsatzen ari naiz, “Dukesa”n ikusi genituenean, ontzian generaman nahitaezko gizon zuriaz?

Robertsek beste hiru Abu-Hameds prestatu zituen.

—Duela hogeit hamar urte gertatu zen. Saxtorph zeritzan. Zalantzarik gabe ezagutu dudana gizonik geldoena zen, baina heriotza bezain nahitaezkoa. Tipo horrek gauza bat bakarrik ez zekien, tiro egitea alegia. Oroitzen naiz ezagutu nuen egun hartaz, hemen bertan Apian. Hori zu iritsi aurretik zen, Roberts. Ni orain azoka dagoen lekuan bizi nintzen, Henry holandarraren hotelean. Entzungo zenuten gizon horri buruz zerbait. Matxinatuei kontrabandoko armak salduaz aberastu zen. Gero negozioa utzi eta sei astera Sidneyn hil zen tabernako iskanbila batean.

Baina Saxtorphi buruz jarraituz. Gau batez lo hartu bezain laster, katu pare bat patioan miauka hasi ziren. Ohetik altxa eta pitxerkada ura botatzeko prestatzera nindoan. Baina une horretan alboko gelako leihoa ireki zen. Bi tiro entzun ziren eta leihoa itxi zen. Ezin dut hitzez esan nolako arintasunez gertatu zen dena. Hamar segundo gehienera. Ireki leihoa, pan-pan errebolberra eta itxi. Tiroen egilea edonor zela ere, ez zen ondorioa ikusten ere molestatu. Begira gelditu gabe zekien. Ulertzen al duzue zer esan nahi dudana? Bazekien. Katuek ez gintuzten gehiago molestatu. Hurrengo goizean han zeuden bi zalapartariak. Harriturik geratu nintzen. Oraindik ere hala nago. Lehenik, patio hartan ez zegoen izarren argia besterik, eta Saxtorphek apuntatu gabe bota zuen tiroa. Bigarren, gatilua bi tiro hotsa bat zela esateko moduan estutu zuen. Eta azkenik, jo zituela seguru zegoen begiratzen ere ez baitzen molestatu. Handik bi egunera ontzira etorri zitzaidan. Ni orduan kontramaisu nintzen. “Dukesa” izugarritzko goleta handi bat

zen, ehun eta berrogeita hamar tonako beltz-tratularien itsasontzia. Eta garai haietan beltz-tratularien itsasontziak ez ziren ahuntzaren gauerdiko eztula. Orduan ez zegoen ikuskatzaile ofizialik, egia da, baina horrek desabantaila bat zekarren: Gobernuak ez gintuela babesten. Lan gogorra zen. Bukatzen bagenuen, bidezkoa kobratu eta bukatzen zen. Hegoaldeko itsasertz guztietan beltzak kontrolatzen genituen. Bada, lehen esan bezala, John Saxtorph berak zioen bezala, ontziratu zen. Luzera txikia zuen, ilea eta azala hondar kolorekoak eta begiak ere halatsu. Espiritua kolorea bezain geza zuen gizon harengan ez zen ezer berezirik nabaritzen. Txanpon bat ere ez zuela, eta tartean pozik sartuko litzatekeela esan zidan. Sukaldari, zerbitzari, zamazain ala marinel soil etorriko zela. Nik ez nuen nahi baina armen maneiaketan zuen trebetasuna ikusirik, ba, hileko hiru liberako soldata bidez, marinel kontratatu nuen.

Egia zen, ikasteko prest zegoen. Baina, hura, berez, ez zen gauza ezer ikasteko. Lema maneiatzeko, ni Robertsek ematen dizkigun nahasketak prestatzeko bezain txarra zen. Bere erruz hasi zitzaidan ilea zuritzen. Itsaso txarretan inoiz ez nintzen ausartu lema bere esku uzten. “Aurrera dena”, “Aurtzakarako prest” eta honelako esaerak misterio ulergaitzak ziren harentzat. Ezin zituen bela lokarri eta beste tresnak bereizi. Ezin zuen. Aitzin masta eta fokeak gauza bat bakarra ziren bere iritziz. Handia jaisteko esan eta, bat konturatzerako, beste oihal bat jaitsiko zuen. Hiru bider erori zen uretara igeri jakin gabe. Beti alai zegoen, inoiz ez zen zorabiatzen eta ezagutu dudan gizonik prestuena zen. Bestalde ez zen oso hiztuna. Behin ere ez zuen bere buruaz hitz egiten. Guretzat haren bizia Dukesan sartu zen egunean hasten zen. Tiro egiten non ikasi zuen? Izarrek besterik ez zekiten. Yankia zen, hizkeran antzeman genionez, baina ez genuen ezer besterik jakin ahal izan.

Eta orain dator gertakizunaren muina. Hebrida Berrietan zorte txarra izan genuen. Bost astetan hamalau gizon bakarrik bildu genituen. Hego-sortaldeko haizeak bultzaturik Salomon irletara iritsi ginen. Malaita orduan, orain bezala, langileak biltzeko leku on bat zen. Malun hondeatu genuen, irlaren ipar-sortaldeko ertzean. Han bi harkaitz-buru ilara daude, edonor urduri jartzeko modukoak, baina inguratu ginen halere, eta beltzei, dinamitaz, behera jaisteko gatzigatu genien. Ez genuen hiru egunetan gizon bat hartu ahal izan. Ehundaka hurbiltzen ziren beren kanoatan baina kontuak, perkal oihalkiak eta aizkorak erakusten genizkienean, barre egiten ziguten. Laugarren egunean aldaketa bat nabaritu zen. Berrogeita hamar gizonek sinatu zuten, bodegatan sartu genituen baina, noski, ontzigainera igotzeko askatasun osoz. Orain

urteak pasa eta gero ikusirik, ez dakit nola ez zitzaigun susmagarri iruditu beltzen uholde hura, baina une hartan, ziurrenik, buruzagi indartsuren batek ontziratzeko debekua eman ziela edo pentsatu genuen.

Bosgarren goizean, ohitura zen bezala, bi txalupa lurrerantz abiatu ziren, bata bestea zainduaz oztoporen bat aurkitzen bazuten ere. Eta beti bezala, berrogeita hamar beltzak ere ontziko gainaldean zeuden atsedenean, hizketan, erretzen edo lotan. Eskifaitik Saxtorph, ni eta beste lau marinel geratu ginen. Txalupetako arraunlariak Gilbert irletakoak ziren, bertakoak. Haietako batean, kapitaina, zamatzaina eta beltzak biltzeko arduraduna zihoazen. Bestea hondartzatik ehunen bat yardatara hondeatua geratzen zen, laguntzaren bat behar bazuten ere. Bi txalupak ongi armaturik zeuden, nahiz eta ezbeharren beldur ez izan.

Lau marinel, Saxtorph barne, txopan zeuden karela garbitzen. Bosgarrena goardian, riflea eskuan, masta aurrean, ur deposituaren ondoan. Ni branka inguruan nengoen, atze mastarentzat aho berri bati azken zertzeladak ematen. Pipa lehen utzi nuen lekutik hartzeko eskua luzatu nuen une berean, itsasertzetik zetorren tiro baten hotsa entzun nuen. Zutitu nintzen begiratzeko. Zerbaitek lepagainean jo ninduen eta erdi zorabiatuak lurrera erori nintzen. Lehenik ertzen bat askatu ote zen bururatu zitzaidan, baina erortzen ari nintzen bitartean eta zorua jo baino lehen, txalupetatik zetozen rifleen tiroak entzun nituen. Itzuli eta segundo batez goardian zegoen marinela ikusi nuen. Bi beltzek besoak azpiratu zizkioten eta hirugarren batek atzetik aizkoraz lepagainean zuen. Oraindik ere ikusten ari naizela iruditzen zait. Ur depositua, masta, marinela azpiratzen gizonak, aizkora lepagainera jaisten, dena eguzki kiskalgarri baten pean. Heriotzaren kontenplazioak liluratzen ninduen. Aizkora izugarritzko lasaitasunez erortzen zela zirudien. Azkenik bota zuten lurrera, eta neu lurreratuaz, gizonaren oinak gorputzari eutsi ezinik amore ematen ikusi nituen. Bi beltzek besoen indarrez eusten zioten, hirugarrenak aizkorakada pare bat kolpatzen ziolarik. Gero neuk ere bi buruko hartu nituen eta hiltzera nindoala konturatu nintzen. Ni jo ninduen basatiak hori nahi zuen nonbait. Ezin nintzen mugitu eta han geratu nintzen, guardian zegoenari burua nola mozten zioten ikusten. Nahiko trebetasunez egin zutela aitortu beharrean nago. Nonbait eskarmentu handia zuten. Txalupetatik zetorren tiro hotsa geratu zen. Eskifaia hil zela pentsatu nuen eta gureak egin zuela. Minutu gutxiren buruan itzuli eta burua moztuko zidaten. Hori zen une hartan txopako marinelekin egiten ari zirena. Giza buruak estimatuak ziren Malaitan, zurienak batez

ere. Hondartzatan bizi diren bertakoen kanoa-etxeetan ohorezko lekua hartzen zuten. Lur barruko biztanleen ohituren berri ez dakit, baina itsas ertzekoak izugarri estimatzen dituzte.

lhes egin behar nuenaren irudipen ahul bat etorri zitzaidan eta lau oinean ardatzeraino arrastaka joan nintzen. Han, nola edo hala zutitu nintzen. Handik txopa ikus nezakeen. Ontzi gelako teilatuaren gainean hiru buru zeuden, hilabete osoan nire agintepean ibili ziren hiru marinelenak. Beltzek zutik ikusi ninduten eta niregana abiatu ziren arrapaladan. Pistola hartzera nindoan baina kendua nuen. Egia esan, ez nuen beldurrik sentitzen. Sarritan egon izan naiz heriotzaren atakan, baina sekula ez orduan bezain gertu. Txunditurik nengoen eta ez zitzaidan ezer axola.

Beltzen buruzagiak, sukaldeko aizkora zuen, eta keinu bihurriak egiten zituen lepoa zerratzeko prestatzen zen bitartean. Baina ez zuen lortu hori egiterik. Ontzi gainera pilota bat eginik erori zen eta bere ahotik odola borborka irteten ikusi nuen. Ametsetan bezala, rifle baten tiroak entzuten nituen. Nire onera etortzen ari nintzen eta ez zela bala bat ere bere destinora iritsi gabe gelditzen ikusten nuen. Tiro bakoitzeko, beltz bat erortzen zen. Ontzi gainean ardatz ondoan eseri nintzen eta gora begiratu nuen. Gurutzetan etzanda, han zegoen Saxtorph. Ez dakit nola moldatu zen hara igotzeko, baina zena zela han zegoen, bi "Winchester" eta munizioz beteriko kartuxera pilo batekin. Eta han egoki jarririk, naturak eman zion dohain hartaz, zekien gauza bakarra egiten zuen.

Tirokatze eta hilketak hamaika ikusi ditut, baina ordurarte ez nuen sekula ikusi halako gauzarik. Ardatz ondoan eseririk ikuskizuna begiratzeko nuen. Ahul eta indargabe nengoen, eta ikusten nuen guztia ametsa iruditzen zitzaidan. Pan-pan-pan jarraitzen zuen rifleak eta klon-klon-klon jarraitzen zuten beltzak ontzigainera erortzen. Harrigarria zen bata bestearen ondoren erortzen ikustea. Nire aurka zetorrena eta dozena bat gehiago erori ondoren, txunditurik geratu ziren. Hala ere Saxtorphen riflea ez zen isildu. Bitartean itsas ertzetik beltzez beteriko bi txalupa heldu ziren, marinelei kenduriko Winchester eta Snidersez beterik. Denak batera tiroka ekin zioten Saxtorphi baina, zorionez, bertakoek oso bertara ez bada, punteria txarrekoak dira. Ez daude riflea sorburuan edukitzen ohituak. Ez dakite asmatzen ehiza sudurraren puntan ikusi arte, eta orduan bakarrik botatzen dute, kulata aldakan jarrita. Saxtorphek riflea gehiegi berotu zenean, bestea hartu zuen. Horregatik igo zituen bi. Gehiena

harritzen ninduen, disparatzeko zuen abiadura zen. Ez zuen bat ere huts egiten. Behinere nahitaezko zerbait izan bada, gizon hura da. Dena hain azkar gertatzeak, triskantza areagotzen zuen. Beltzek ez zuten pentsatzeko denborarik ere. Ahal zutenek, uretara ziztu bizian jauzi egiten zuten, kanoetan ihes egiteko. Saxtorph ez zen geratzen. Itsasoa gorpuez beteta zegoen, eta balak oraindik ere haien gainean jarraitzen zuten. Ez zuen bat ere huts egiten eta, nengoen lekutik, giza haragitan sartzen ziren balen hots gogorra entzuten nuen. Beltzak, itsas ertzera igerian iristeko banatu egin ziren. Ura buruz beterik zegoen. Nik altxa eta amets batetan bezala dena ikusi nuen: zalapartaka hasten ziren buruak eta bat batean zalaparta egiteari uzten zioten. Haietako tiro batzuk, benetan bikainak izan, ziren jomugarainoko distantzia ikusirik. Beltz bat bakarrik iritsi zen hondartzaraino eta zutitzen ari zen une berean Saxtorphek bala batez jo zuen. Ikuskizun ederra huraxe. Erori zenari laguntzera beste bi beltz irten zirenean ere, Saxtorphek biak hil egin zituen.

Dena bukatu zela uste nuen, baina berriro tiroak entzun nituen. Beltz bat kameratik irten zen karelarantz, baina bide erdian erori zen. Ontzi gela, bertako jendez beterik zegoen. Hogei arte zenbatu nituen. Banan-banan tximista bezala irten ziren karelarantz baina bat ere ez zen iritsi bertara. Usakume tiraketa zirudien. Kamerako eskilaratik beltz bat irten orduko, pan, Saxtorphen rifleak eta han erortzen zen gorpu. Noski, behean zeudenak ez zekiten ontzigainean zer gertatzen zen, eta horregatik azkenekoa erori arte irteten jarraitu zuten.

Saxtorphek pixka bat itxaron zuen, besterik ez zegoela segurtatzeko eta gero ontzigainera jaitsi zen. Dukesaren eskifaiako bizidun bakarrak biok ginen, eta ni nahiko gaizki nengoen. Tiroketa bukatu ondoren benetako deskalabrua zirudien hark. Nire esanei jarraituz, buruko zauriak garbitu zizkidan, eta puntu batzuk eman ere bai. Whisky trago handi batek leku hura uzteko hainbat indar eman zidan. Besterik ez zegoen egiterik. Lagun guztiak hilda zeuden. Itsasoratu nahi genuen; Saxtorphek oihalak jasoaz, eta ni leman jarrita. Lehengo marinel traketsa zen, eskarmentu gabea eta motela. Ez zekien oihal jasotzen nola hasi ere, eta ni lurrera zorabiatu erori nintzenean gure azken orduak iritsi zirela zirudien. Berriro nire onera etorri nintzenean. Saxtorph lasai-lasai eserita aurkitu nuen zer egin galdetzeko zain. Zaurituak begiratzeko esan nion eta ea norbait mugitzeko gai zen ikus zezala. Sei bildu zituen. Batek hanka bat hautsita zuen baina Saxtorphek besoak higi zitzazkeela esan zidan. Ontzigainean itzalean etzanik eta euliak ezin uxatuaz, maniobra guztiak zuzendu nituen, Saxtorphek bere ekipo elbarrituei

aginduak ematen zizkien bitartean. Eta beltz gaixo haiei soka mutur guztiak banan-banan tinkatuarazi zizkien. Bat batean haietako bat askatutako oihal bat jasotzen ari zela hilda erori zen ontzigainera. Baina Saxtorphek besteak astinduz lanean jarrarazi zituen. Aitzin masta eta handia jarik zeudela, aingurak jasotzeko esan nien. Gero lema ondora joaten lagundu ninduten tresnak maneiatzen hasi nintzen. Ez dakit nola konpondu zen, baina bat jaso ordez, bigarren aingura jaitsi zuen, eta birritan hondoraturik geratu ginen.

Noizbait irtetzea lortu genuen eta Dukea abiatu zen. Ontzigaina benetako ikuskizuna zen. Beltz hilak edo erdi hilak nonahi. Zenbait, lekurik xelebreenetara erorita. Kamarotea, ontzi gainetik arrastaka iritsi ziren gizonez beterik zegoen, han hiltzeko. Saxtorph eta bere ehortzaile taldea lanean jarri nituen, borda gainetik gorpuak botatzen eta han joan ziren nahasirik biziak eta hilak. Beltzek hil zituzten lau marinelek ere bide berdina jarraitu zuten. Buruak pisuko zaku batzuetan sartu genituen itsasoak hondartzarantz eraman ez zitzaiz eta beltzen esku erori ez zitezten. Bost atxilotuak marinel bezala hartu nituen baina eurak beste zerbait pentsatu zuten. Unerik egokiena aurkitu zutenean uretara bota zuten euren burua. Saxtorphek bere errebolberrez bi bota zituen eta uretan zeuden beste hirurekin ere berdin jokatu zuen nik eragotzi ez banio. Hainbesteko triskantzak zeharo nazkatzen ninduen eta, bestalde, itsasoratzen lagundu ziguten. Baina nire errukiak ez zuen ezertarako balio izan, marrazoek irentsi baitzituzten.

Lehorretik aldendu ginenean, sukarrak hartu ninduen. Hiru astetan Dukea noraezean ibili zen, eta, indarberritu nintzenean, Sidneyra joan ginen. Edozein eratarata ere Maluko beltz haiek behin betirako ikasi zuten: gizon zuria bakean uztea dela onena. Zalantzarik ez dago. Gertakizun hartan Saxtorph benetan ezinbestekoa izan zela.

Charley Robertsek txistu hots luze bat egin, eta esan zuen:

—Hori argi dago. Baina zer da hartaz?

—Fokak ehizatzen ibili zen eta oso trebea izatera iritsi zen. Sei urtez Biktoria eta San Franziskoko ontzidietako arrantzalerik iaioena zela zioten. Zazpigarren urtean, errusiar gurutzeontzi batek bere goleta harrapatu zuen, eta, orduan esan zutenez, eskifai osoa

Siberiako gatz meatzetara bidalia izan zen. Gehiago ez dut haren berririk.

—Mundua kolonizatu — marmar egin zuen Robertsek—. Bueno, haiengatik topa egiten dut. Norbaitek egin behar du. Mundua kolonizatu esan nahi nuen.

Woodward kapitainak bere burusoila gurutzatzen zuten arrastoetatik pasa zuen eskua.

—Nik nirea egin dut —esan zuen—. Berrogei urte daramatzat lan honetan. Hau izango da nire azken bidaia. Gero etxera itzuliko naiz eta ez naiz handik mugituko.

—Ezetz hori egin! Nahi duzuna jokatuko dizut — esan zion Robertsek—. Zu horrela hilko zara, ez etxean.

Woodward kapitainak apustua berehala onartu zuen, baina nire ustetan Charley Robertsek irabaziko zuen.

BALEAREN HORTZA

Aspaldian gertatu zen Fijin, John Starhurstek, Rewa auzoko misio etxea, Viti Levu guztira Ebanjelioa zabaltzeko asmoa agertu zuenean. Viti Levuk “Lurralde Handia” esan nahi du, eta ehunka uharte handiz, txikiak ez aipatzearren, osaturiko irla-multzo bateko handiena da. Han eta hemen, itsasertzean zehar eta egoerarik okerrenean, misiolari batzuk, salerosleak, itsasoko kui arrantzaleak eta baleontzietako desertoreak bizi ziren. Kanpoko suen kea beren leihopetatik gora igotzen zen, eta bertako hildakoen gorpuak euren ate aurretatik pasatzen ziren jaialdirako bidean.

Kristau erlijioak ez zuen indarririk hartzen, eta sarritan atzeraka zihoala zirudien. Beren burua kristautasunera bihurturiko eta Eliza barnean pozkarioz hartuak izandako buruzagiak, euren antzinako joerataraz itzultzen ziren sarritan, etsai handienetakoren baten haragi zatia dastatuaz. Jatea edo jana izatea zen irletako legea, eta itxura zenez, ez zirudien luzaroan aldatuko zenik. Ehunka eta ehunka gizaki irentsitako buruzagiak bizi ziren, Tanoa, Tuiveikoso eta Tuikilakila bezala. Baina tripontzien artean Ra Undreunde zen lehen postua zeramana. Ra Undreunde Taikakin bizi zen. Errejistro ikaragarri baten bidez azaltzen zuen bere dastamen agiria, etxeke ate aurrean ilaran jarritako harriak, jan zituen gorputzen zenbakien lekuko zirelarik. Ilara honek berrehun eta hogeitahamar oin zituen luzeran eta zortzirehun eta hirurogeitahamabi harriz osaturik zegoen. Hauetako bakoitzak jandako gorputz bat esan nahi zuen, eta lerro askoz ere luzeagoa izango zen Ra Undreundrek Somo-Somon segada batean erortzeko zoritxarra izan ez balu, ipurdi gainean lantza bat sartu eta bere ilaran berrogei eta zortzi harri besterik ez zituen Naungavuliren mahaian zerbitzatu izan ez bazuten. Misiolariek, gutxi izan arren, irmoki jarraitzen zuten euren lanean, gogaiturik batzuetan, eta beti ere arimen irabazte lorios bat lortzeko baliagarri izango zitzaaien Mendekoste su baten zain. Baina Fijik, irla gizajaleak setatsu jarraitzen zuen berean. Bertako gizajaleak ile beltzaranak, giza gorputz uzta ugaria zen bitartean, ez zeuden prest bere eltzekada gozoena uzteko. Batzuetan, gose gehiegizkoa zenean, misiolariez baliatzen ziren, honelako egunetan hilketa bat eta haragi erreketak on bat egin behar zutela zurrumurrua zabalduaz. Gero, gauzak lege itxura gehiago hartu zuen, eta biktimen bizitzak erosten hasten ziren, tabako, perkal eta koloretako kontuz ordaintzen zituztelarik. Honela herrixketako buruzagiek negozio on bat egiten zuten giza haragi

ugaritasuna aprobetxatuz. Edozein erataraz ere, beti irten zitezkeen gehiagoren ehizera.

Inguru hartan zen Jon Starhurst Ebanjelioa “Lurralde Handiko” ertz batetik bestera iragarriko zuela, eta Rewa ibaiaren iturrietako leku menditsuetan sartuaz hasiko zela aldarrikatu zuenean. Bere hitzek izu ikara handia sortu zuten. Bertako maisuek isilean negar egin zuten. Bere bi lankideek, biak misiolariak, atzerarazi nahi zuten. Reweko erregeak, herrialdeko biztanleek zalantzarik gabe kai-kai (jan) egingo zutela jakinarazi zion, eta errege horrek berak ere, Lotura bihurtzeko, mendietako biztanleei gerra deklaratu beharko ziela. Oso ongi zekien ez zituela garaituko. Bazekien, baita ere, beraiek alderantziz, ibaiez jaitsi eta Rewa herrixka suntsi zezaketela. Baina zer besterik egin zezakeen? John Starhurst irteten tematzen bazen, eta bere burua jaten utzi, ehunka giza bizitza kostako zen gerra bat sortuko zen.

Zuen eragozpenek ez dute baliorik. Zuen negozioek kalte izango dutelako beldurrez bakarrik hitz egiten duzue. Zuei dirua egitea axola zaizue, niri berriz arimak salbatzea. Norbaitek askatu behar ditu iritzi okerren ilunpean suntsiturik dauden lur hauetako paganoak.

John Starhurst ez zen fanatiko bat. Bera izango zen hori demostratzen lehenengoa. Alderantziz, oso gizon zentzuzko eta praktikoa zen. Bere eginkizuna denen onerako zela sinesturik zegoen, eta, bere barruan, hango biztanleen arimetan Mendekoste su txinparta bat pizten ikusten zuen bere burua, eta erlijio sentimendu gartsu baten uhin aldia altxatzen, mendietatik jaitsiaz mutur batetik besteraino, lurralde handia piztu eta itsasoan ziprztinduriko irla guztietara zabalduko zena. Bere begi gris atsegin haietan ez zen basati itxurarik, baizik eta erabaki lasai batek eta bera zuzentzen zuen Goi Agintearengana zuen fede izugarri batek gidatutako begirapena.

Gizon bat bakarrik aurkitu zuen bere asmoarekin ados zegoena, eta hau Ra Vatu zen, sekretuki animatu zuen, eta lehen mendien oinetaraino eramango zuten gidariak aurkitzeko bere burua eskaini zion. John Starhurst, bere aldetik, oso pozik zegoen Ra Vaturen jokabideaz. Pagano zuzengaitz zen batetik, baina bazirudien bere barruan argia sortzen hasi zitzaiola. Ra Vatak Lotura bihurtzeaz ere hitz egiten zuen. Egia zen hiru urte lehenago ere asmo berdina agertu zuela, eta Eliza barnean sartuko zela, bere lau emazteak ekartzeaz John Starhurst kontrajarri ez balitzaio. Ra Vatu monogamiaren aurkako zen, arrazoi etiko eta ekonomikoengatik. Misiolariaren objekzio erreak minberatu egin zuen, eta gizon librea eta ohoreduna zela

agertzeko, bere gerra mazoa Starhursten gainera bota zuen. Misiolariak kolpetik alde egin zuen mazoa saihestuz eta Ra Vaturi helduaz laguntza iritsi zitzaion arte. Baina guzti hura ia ahaztuta eta barkatuta zegoen. Ra Vatu Elizara sartzera zihoan, ez pagano kristau bilakatu bezala bakarrik, baizik eta poligamo damutu gisa ere bai. Bakarrik, Starhursti baieztatu zion bezala, oso gaixo zegoen bere emazterik zaharrena hiltzeko zain zegoen.

John Starhurstek, bada, Rewa ibai alferra igo zuen, Ra Vaturen kanoa batean, bi egunetan eramanean zuen honek, eta gehiago ez, ze ibai hura ez baitzen gero nabigarri. Handik, ontzia herrira itzuliko zen. Urrunean eta zerura begira, “Lurralde Handiko” bizkarrezurra ziren mendi grisaxkak ikusten ziren. John Starhurstek irrikaz begiratu zien egun osoz. Batzuetan isilean bakarrik otoitz egiten zuen; bestetan bere eskarrietan Narau elkartzen zitzaion, duela zazpi urte Lotura bihurtu zen bertako maisua, James Ellery Brownek labean erretzetik salbatu zuen egunean, ehun tabako zotz, kotoiazko bi manta eta min kalmante zen ontzi baten truke. Azken unean, eta hogeitau ordu erreguka eta bakarkako otoitzean jardun ondoren, Narauk misio lanetan laguntzeko prest zegoela agindu zion.

—Nagusi, zurekin joango naiz —aldarrikatu zion.

John Starhurst atsegin zehurreraz goretzi zuen. Nabaria zen Jauna bere aldetik zegoela, Narau bezain adone gutxi izaki bat laguntzera bultzatu bazuen.

—Zalantzarik gabe ez dut adorerik, Jainkoaren umeen artean ahulena naiz — adierazi zion Narauk kanoan lehen egunean.

—Fedea izan behar duzu, fede indartsuago bat —agiraka egin zion misiolariak.

Beste kanoa batek egun hartan bertan igo zuen Rewa. Baina lehengoari ordubeteko aldearekin jarraitzen zion, eta ikusia izan ez zedin ardura handiz. Ra Vaturena zen hau ere, eta bertan Eriola zihoan, erregearen lehengusu eta konfiantzazko gizona. Eskutik inoiz uzten ez zuen saskitxoan bale hortz bat zeraman. Zoragarria zen, sei pulgada luze, neurri ederretako eta denborak horixka eta purpura bihurtu zuen boli zati bat zen. Ra Vaturena zen, eta Fijin, egun argitara holako hortz bat ateratzen denean, gehienetan zerbait gertatzen da. Bale hortzak

berezitasun bat izaten omen du. Onartzen duenak, ez diezaioke laguntzen edo jarraitzen dion eskariari ukorik egin. Eskari hori edozer gauzari buruz izan daiteke, giza bizitza batetik akordio arrunt bateraino, eta irla guztian ez dago biztanlerik, ez bizirik ez hilik, ohorea axola ez zaionik, behin hortza onartuz gero ukatzea ausartu denik. Zenbaitetan betetzea atzeratu izan da, baina aurkako ondorioak pairatuz.

Ibai garaietan, Mongondro izeneko buruzagi baten herrixkan, John Starhurstekek, bidaiaren bigarren egunean, atsedean hartu zuen. Hurrengo goizean, Narauk lagundurik, inguratzean berde eta belusezkoak bihurtzen ziren mendi grisetara abiatzeko prestatu zen. Mongondro buruzagi zahar, atsegin, jokabide oneko eta gutxi ikusten zuena, elefantiasiz kexatua zen. Gerraren iskanbilak ez zuen ia erakartzen. Misiolariari oso ongiatorri ona egin zion, bere mahai kidetza eskaini eta berarekin erlijioz eztabaidatzea ere onartu zuen. Mongondro, izatez, aztertzailea zen, eta John Starhurst erabat poltsikoratu zuen gauza guztien sorrera eta izatea adierazteko eskatu zionean. Misiolariak Genesiak zioen eran izadiaren sorrera laburtu zionean, Mongondro zeharo hunkiturik geratu zela ikusi zuen. Buruzagi zaharra luzaroan egon zen tabakoa erretzen isiltasunean. Gero pipa ahotik atera, eta goibeldurik buruari eragin zion.

—Ezinezkoa da —esan zuen— Nik neuk, gaztetan, iaioitasunez erabiltzen nuen aitzurra. Eta hala ere, kanoa bat egiten hiru hilabete behar nituen. Kanoa txiki bat. Eta zuk esaten didazu lur hau guztia eta ur hauek gizon bakar batek egin zituela...

—Ez. Jainko batek egin zituen. Egiatzko Jainko bakarrak —eten zuen misiolariak.

— Berdin dio — jarraitu zuen Mongondrok— Diozunez, lur guztia eta ura eta zuhaitzak eta arrainak eta sastrakak eta mendiak eta eguzkia eta ilargia eta izarrak sei egunetan egin zituen. Ez. Ez. Gaztetan oso gizon trebea nintzela esan dizut, eta, hala ere, kanoa bat egiteko hiru hilabete behar nituen. Historia horrek haurrak ikara ditzake baina gizonak ez dezake sinets.

—Ni gizon bat naiz —esan zuen misiolariak.

—Egia da, zu gizon bat zara. Baina nire jakinduria mugatuarentzat ezinezkoa da zuk sinesten duzuna onartzea.

—Mundua sei egunetan egina izan zela sinesten dudala errepikatzen dizut.

—Hori da zuk esaten duzuna —esan zuen gizajale zaharrak baketsu.

John Starhurst eta Narau oheratu zirenean, orduan, Eriola buruzagiaren egonlekura sartu zen, eta, hitzaldi diplomatiko baten ondoren, balearen hortza eman zion. Agureak luzaroan eduki zuen eskuan. Oso ederra zen eta bereganatzea nahi zuen, baina haren truke eskatzen zitzaiona zein zen asmatu zuen.

—Ez, ez. Oso hortz polita da—esan zuen eta ikusteak bakarrik ere zorutzen zuen, baina Eriolari itzuli zion aitzakiak bilatuz.

Egunsentian, John Starhurst basabidean zihoan larruzko botak jantzirik bere Narau zintzoak laguntzen ziolarik, eta aldi berean Mongondrok hurrengo herrixkaraino joateko prestatu zion gidari biluts bati jarraituz, eguerdian iritsi ziren. Handik aurrera beste gidari batek lagundu zien. Milia batera, neke handiz jarraitzen zien Eriolak, sorbaldatik zintzilik zeraman saski barnean balearen hortza zuelarik. Bi egun gehiagotan jarraitu zuen honek igarotzen ziren herrixketako buruzagiei hortza eskainiaz. Baina banaka-banaka denek arbuiatzen zuten oparia. Misiolaria hain gertutik jarraitzen zuelarik, denek asmatzen zuten eskaria zein izango zen, eta arazo hartan parte hartu gabe egotea nahiago zuten. Mendian barna sartu ziren gehiago eta gehiago, eta Eriolak azkenik bidezidor ezkutu bat hartu zuen, misiolaria aurreratu, eta Gatokako Buliren mugara iritsi zen. Bulik ez zekien Starhursten etorrera hurbilaren berririk, eta, bestalde, hortz hura oso ederra zen, eredu harrigarria, kalitate eta kolorerik estimatuenetakoa. Publikoki aurkeztua izan zen. Bulik, bere lastaira onenean eseririk eta buruzagiz inguraturik, hiru zerbitzari atzean euliak uxatzeko zituela, Ra Vatuk bere lehengusu Eriolaren bidez bidaltzen zion bale hortza mezulariaren eskuetatik onartzea erabaki zuen. Eskaintza onartu zuen, bertan zeudenak txaloka eta han bilduriko buruzagi, mezulari eta zerbitzariak oihuka koruan esaten zutela:

—A woi, woi, woi! A woi, woi, woi! A ta- bua levu woi woi! A mudua mudua mudua!

—Laster, oso laster, gizon bat iritsiko da, gizon zuri bat — hasi zen Eriola, ohiturazko atsedena dia egin ondoren— Misiolaria da eta gaur bertan etorriko da. Ra Vaturi bere botak desiratzea atsegin zaio. Bere lagun on Mongondrori oparitzea nahi du, eta oinak barnean dituela bidaltzea bururatu zaio, Mongondro zaharra delako eta bere hortzak lehengoak ez direlako. O Buli! asegura zaitetz oinak bota barnean doazela. Gorputzaren beste atal guztiak gorde ditzakezu.

Bale hortzak sortu zion pozak ihes egin zuen Buliren begietatik, ingurura zalantzatan begiratzen zuen bitartean. Baina oparia onartua zuen ordurako.

—Zer garrantzi du ba misiolari batek! — esan zion Eriolak.

—Egia da, zer garrantzi du ba! — erantzun zion Bulik, ia bere zalantzetatik irtenaz— Mongondrok izango ditu botak. Joan zaitetzte zuetako hiru edo lau, gazteenak, eta bidean hatzeman ezazue misiolaria! Botak ekartzea ere ez ahantzi!

—Beranduegi da — esan zuen Eriolak— Hara, hemen dator.

Landare artean bidea irekiz, une hartan bertan sartu zen erdira John Starhurst, Narau atzetik zuela. Ibaia igarotzean urez bete zitzaizkien bota entzutetsuak, eta oinkada bakoitzean surtidore antza botatzen zuten ura. Starhurstek txinpartak boteaz begiratzen zuen bere ingurura. Fede tinko batek eraginik, zalantzarik eta beldurrik gabe, ikusten zuen guztiaz pozten zen. Bazekien munduaren hasieratik Gatokako zokoa zapaldu zuen lehen gizon zuria zela.

Belarrezko txabolak mendi hegal aldapatsuan pilatzen ziren, edo Rewa aldean zintzilikatzen ziren. Herrixkaren bi aldeetara amildegi izugarriak irekitzen ziren. Gehienez ere eztarri zintzur estu hartan hiru ordutan sartzen zen eguzkia. Ez zen ez platanondo ez kokondorik, nahiz eta tropikoko landaredi trinkoak amildegiaren hertz berbera haietatik azken zokoraino, giralanda berdez tantaka bete, eta harkaitzaren zartadura bakoitzean koloretan lehertzen bazen ere. Zintzuraren sakonean Rewa ibaiak zortzihun oineko jauzia egiten zuen. Babestoki harkaitzsuaren atmosfera guztia ur saltoaren trumoi hots ritmikoek astintzen zuen.

John Starhurstek Bulia eta bere jarraitzaileak txabolatik irteten ikusi zituen.

—Berri onak dakartzat —izan zen misiolariaren agurra.

—Nork bidaltzen zaitu? —galdetu zion Buliak lasaiki.

—Jainkoak.

—Inoiz ez dut entzun izen hori Biti Levun —erantzun zion Buliak irribarrez— Zein uharte, herri edo zintzurretan agintzen du?

—Uharte, herri eta zintzur guztietako buruzagia da — erantzun zuen Starhurstek handikiro — Zeru eta lurren jauna da, eta ni bere hitza ekartzera etorri natzaizu.

—Bale hortzen bat bidaltzen al dit? — erantzun zion lotsagabeki.

—Ez, baina edozein bale hortz baino ederragoa da...

—Buruzagien artean bale hortzak bidaltzea da ohitura — eten zuen Buliak—. Edo zure buruzagia zeken bat da, edo zu kirten bat zara, mendian esku hutsik sartzera ausartzean. Kontuz ibil zaitez, zu baino lehenago iritsi baita leialago bat.

Eta hitz hauek esatean, Erirolak eman zion hortza erakutsi zion. Narau purrustaka hasi zen.

—Ra Vaturen hortza da — marmartu zion Starhursti belarrira — Ongi ezagutzen dut. Galduak gara.

—Zer begiramena Ra Vaturena! —erantzun zuen misiolariak bere bizar luzea leunduaz eta betaurrekoak jasoaz— Ongietorriak izan gaitezen dena antolatu du.

Baina Narau berriro purrustaka hasi zen, eta ordurarte hain leialki jarraitu bazion ere, orain alderatu egin zen.

—Ra Vatu Lotura bihurtzera doa — adierazi zuen Starhurstek— eta ni zuri berria ekartzera etorri naiz.

—Zure Lotuaz ez dut ezer jakin nahi — esan zuen Buliak harro — Gaur bertan mazokadaka hil zaitezela erabaki dut.

Buliak bere jarraitzaileetako bati keinu bat egin, eta honek maza bat eraginez urrats bat eman zuen aurrera. Narauk gertueneko txabolara ihes egin zuen emakume eta lastail artean ezkutatzeko, baina John Starhurstek jauzi batez maza saihestu zuen, eta besoak bere borreroaren lepoaren inguruan lotu zituen. Eta egoera honetan borrokan hasi zen. Bere bizia defendatzen zuela bazekien, baina ez zegoen ez urduri eta ez beldurturik.

—Gaizki egingo zenuke ni hiltzea —esan zion eraso zuen gizonari— Ez dizut txarrik egin, ez zuri eta ez Buliari ere.

Gizona hain ongi lotua zuenez, beste inor ez zen ausartu maza jotzen. Berak bere bizia defendatzen zuen, eta bere heriotza oihukatzen zutenekin eztabaidan hasi zen.

—John Starhurst naiz — jarraitu zuen lasai — Hiru urtez lan egin dut Fijin eta inoiz ez nire onerako. Zuen artean on egitera etorri naiz. Zergatik hil behar nauzue? Nire heriotzak ez lioke inori onik egingo.

Buliak begirada arin bat bota zion bale hortzari. Egitera zihoana oso ongi ordainduta zegoen, Misiolaria hura erasotzeko irrika bizian basati biluts saldo batez inguraturik zegoen. Labearen abestiak heriotza giroa zabaldu zuen, eta bere protestak ez ziren entzuten. Baina hain iaioki inguratu zuenez bera eraso zuen gizonaren gorputza, inork ez zuen jo ahal izan. Erirolak irribarre egin zuen eta Bulia sutan jarri zen.

—Alde denok! Istorio ederra entzun behar dute itsasertzean! Dozena bat gizon ez zarete ausartzen emakume bat baino ahulago den misiolari arma gabe baten aurka, eta gainera denok menderatzen zaituzte.

—Itxaron ezazu pixka bat Buli! — oihu egin zuen John Starhurstek indarkeriari utzi gabe —. Zu ere borrokatuko zaitut! Nire armak justizia eta egia direlako ez dago gizonik horien aurka ezer egin dezakeenik.

—Gerturatu zaitetz orduan — erantzun zion Buliak— maza soil batez bakarrik armaturik noanez eta zuk diozunez zure aurka ez dezaket ezer egin.

Gizonak aldendu ziren, eta John Starhurst bakarrik gelditu zen, gerra maza bat sostengatzen zuen Buliaren aurrean.

—Gerturatu zaitetz misiolari, eta garai nazazu — erronka bota zion.

—Gerturatu eta garaituko zaitut — erantzun zuen John Starhurstek betaurrekoak garbituz, sudurrean jarriaz eta etsaiarenganantz urrats bat emanez.

Buliak maza jaso eta itxaron zuen.

— Lehenik, nire heriotzak ez zintuzke ezertan lagunduko— hasi zen Starhurst.

— Nire mazoak erantzun diezazula — erantzun zuen Buliak.

Eta argudio bakoitzari erantzun bera ematen zion, baina misiolaria zaintzeari utzi gabe, eta armarekin nola eman bat-bateko danbatekoa pentsatuaz. Orduan konturatu zen lehen aldiz John Starhurst heriotza gertu zuela. Ez zuen ihes egiterik pentsatu.

Burua soilik, eguzkitan zutik, ozenki otoitz egin zuen. Basatiarekin bere gordeleku guztietan nahiz ron botilaz, nahiz balaz, nahiz Bibliaz kontrajartzen den nahitaezko gizon zuriaren irudi misteriozua zen berea. Eta honela egon zen John Starhurst Gatokako Buliaren gaztelu harkaitzsuan.

— Barka iezaiezu ez baitakite zer egiten duten — otoitz egin zuen — Jauna, Fijiz urrikaldu zaitetz.

Irla honen errukia izan ezazu. Gure Jauna, bere heriotzez gizon guztiok zure seme izan gintezkeela agindu zenion Jesukristoren izenean entzuniezaguzu. Zuregandik gatoz eta zuregana itzuli nahi dugu. Lurra iluna da Jauna!, lurra iluna da. Baina zuk salba gaitzakezu zure erruki amaigabez. Zabal ezazu zure eskua Jauna eta salba ezazu Fiji, irla gizajale hau.

Bulia ernegatzen ari zen.

—Orain erantzungo dizut — marmartu zuen, maza bi eskuz eraginez.

Narauk emakume eta lastail artean ezkutaturik, kolpearen hotsa entzun zuen eta dardaratu egin zen. Airean heriotzaren abestia altxa zen. Geroago jakin zuen bere misiolari maitearen gorputza erretzeko labera zeramatela, hitz hauek entzutean:

—Kontuz arrasta nazazue, kontuz. Nire herriaren buruzagia naiz eta.

—Eskerrak eman, eskerrak eman.

Gero ahots bat bakarrik entzun zen zalapartaren erdian hau galdetuz:

— Non da ausarta?

Ehun ahotsek oihukatu zuten erantzuna.

—Labera arrastatu dugu erretzeko.

— Non da beldurtia? — galdetu zuen beste batek.

—Berria ematera joan da — erantzun zuten ehun ahotsek —. Berria ematera joan da. Berri ematera joan da.

Narauk entzun egin zuen espiritua larriturik. Abesti zahar hark zioena egia zen. Bera beldurti bat zen, eta ia ez zezakeen ezer egin, berria zabaldu besterik.